ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko Apirilaren 7a > Astelehena > VI. urtea > 184. zenbakia > Doan banatzekoa
www.goiena.net

"Arantzazuko yoga kongresuaren helburu nagusia partaideek elkar ezagutzea da"



**Amaia Elosegi**
Yoga irakaslea > 9

**G2a** **'Gronhölm metodoa': umorea eta satira** > 24

**DEBAGOIENA**
**Hezkuntza sistema propioa eskatzeko ekimenak** > 09

**KIROLA**
**Bergara jaisteko arriskuarekin, Gasteizen 31-27 galduta** > 15

**KULTURA**
**Lurdes Idoiaga Oñatiko alkatearen aisialdia ezagutu dugu** > 27

**ETXEBIZITZA** > DEBAGOIENA

# Etxebizitzen salerosketak behera egin du gure ibarrean

**DEBAGOIENA** Iazko urtarrileko datuekin alderatuta, %36 jaitsi da etxebizitzen salerosketa Gipuzkoan

**ARRAZOIAK** Beherakada horren arrazoien artean, interes tipoen daude gorakada eta likidezia falta

**KRISIA** Debagoieneko inmobiliariek eta eraikuntza enpresek salerosketak nabarmen jaitsi direla diote > 02-03

**ENPRESA** > ELKARTASUNA

## Fagorreko bazkideak, Saharan eta Iparraldean

Fagor Arrasateko bazkideek bi proiektu bultzatu dituzte > 05

**G2a**

## Manex Agirre bigarren Arabako bertsolari txapelketan

Sei bertsolarik jokatu zuten zapatuan Gasteizen Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Bi aramaioar ziren finalisten artean: Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre. Asier Otamendik, Oihane Pereak, Zigor Enbeitak eta Iñaki Viñasprek osatu zuten finaleko seikoa. Saio erregularra egin zuen Asier Otamendi txapeldunaren ostean, bigarren izan zen Manex Agirre. Buruz burukora parean iritsi arren, azken jardunean aurrea hartu zion Otamendik aramaioarrari. > 23



**GASTEIZEN.** Principal antzokian jardun zuen Manex Agirrek, zaleen animuek lagunduta, zapatuan. EDORTA SANZ

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**GARRAIOAK** > DEBAGOIENA

## Tranbiaren proiektuarekin aurrera doa Garraio saila

Nuria Lopez De Gereñu Garraio Sailburuak Debagoieneko tranbiaren proiektuarekin lanean jarraitzen dutela berretsi du aste bukaeran. Gereñuren arabera, udalekin adostu beharreko akordioek atzeratu dute proiektua. Hasiera baten, tranbiak 28 kilometroko ibilbidea izango du gure ibarrean, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Eskoriatza zeharkatuz. Herri barruetatik tranbiak izango lukeen ibilbidea adosten dihardute Jaurlaritza eta Debagoieneko udalek.

Jaurlaritzak hasieran zehaztutako epeak ez direla betetzen ari salatu zuen PSE-EEk ostiralean Legebiltzarrean.> 04





**INMOBILIARIAK** Gaur egun, hiru bat hilabete behar dituzte inmobiliariek etxe bat saltzeko. Irudian, bi lagun Bergarako inmobiliaria baten eskaintza begiratzen. MIRIAN BITERI

**ETXEBIZITZA** >IAZKO ETA AURTENGO URTARRILEKO DATUAK ALDERATUTA

# Gipuzkoan %36 jaitsi dira etxebizitzen salerosketak

**ARRAZOIAK** Beherakada horren arrazoien artean, daude herritarrek likidezia gutxiago dutela eta interes tipoen etengabeko gorakada

**IBARREAN ERE IGARRI DA** Bailarako inmobiliariek eta eraikuntza enpresek azken hilabeteetan salerosketak nabarmen jaitsi direla diote

**PSIKOSIA** Krisi ekonomikoaz asko hitz egiten dela eta horrek herritarren artean psikosia sortu duela adierazi dute eraikuntza arloko enpresek

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Etxebizitzen salerosketak beherakada nabarmena jasan du azkenaldian gurean. Aurtengo urtarrilean 2007ko hilabete bereko datuekin alderatuta, %36 jaitsi da Gipuzkoan. Euskal Autonomi Erkidegoan beherakada hori txikiagoa izan da, %22,6koa.

Herritarrek likidezia gutxiago dute orain eta, beraz, ez dituzte hainbeste salerosketa egiten. Auto gutxiago erosten ditugu orain eta etxebizitza bat erosi aurretik kontuak atera eta asko pentsatu behar dugu.

### INTERES TIPOAK GORA

Gainera, hipoteken interes tipoek ere gora egin dute azkenaldian eta horrek ere eragin zuzena izan du salerosketetan. Azken horren harira, aurtengo urtarrilean, Euskal Autonomi Erkidegoan hipoteka gutxiago kontratatu dira. Guztira, 4.250 hipoteka berri egin ziren, joan zen urtean baino 1.000 gutxiago.

Bailarako inmobiliariakoak eta eraikuntza-enpresak jaitsiera hori sumatzen hasi dira dagoeneko. Ibarreko Deba Garaia agentziako Jesus Mari Markaidek uste du gizartean "uste oso psikologikoa" eman dela, "komunikabideek bi urte daramatzatelako esaten prezioak jaitsi behar direla, gehiago ezin direlako igo, eta horrek gizartean eragina izan du. Prezioek behera egin behar dutela eta etxe bat erosteko momentua aproposena ez dela uste dute", azaldu du. Markaidek ez du garbi ikusten prezioak horrenbeste jaitsi egin behar direnik.

Oñatiko Ugarte eraikuntzako enpresakoak ere Markaideren iritzi berekoak dira. Azkenaldian, krisi ekonomikoaz asko hitz egin dela eta ondorioz, debagoiendarren artean "krisi psikosia" dagoela uste dute. Beherakada joan zen uztailetik igarri dutela eta etxebizitzak saltzeko "arazoak" daudela onartu dute. Ugarte eraikuntza enpresak Oñatin bakarrik egiten du lan eta ez ditu ezustean harrapatu: "Gu enpresa txikia gara eta beraz, ez gaitu oso txarto harrapatu".

### HIRU HILABETE SALTZEKO

Arrasateko Anboto inmobiliariakoek ere horrelakorik gerta zitekeela aurreikusita zuten. "Urtebete inguru daramagu jaitsierarekin, apurka joan da jaisten". Etxebizitza berrietan nahiz bigarren eskuko etxeen salmenten beherakada sumatu badute ere, "kezkatzeko" arrazoirik ez dagoela esan dute. "Saltzen jarraitzen dugu. Gertatzen dena da orain ez dugula hainbeste saltzen. Lehen etxe bat saltzeko astebete baino gutxiago behar genuen eta orain bi edo hiru hilabete behar izaten ditugu".

Horren harira, azken urteetako salmentak ohi baino altuagoak izan direla adierazi dute.

DEBAGOIENEKO UDALAK

## Debagoieneko udalen artean, denetarik dago

Debagoieneko hainbat udaletan ere krisia igartzen hasi dira. Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok, esaterako, merkatu libreko etxebizitza berriak saltzeko arazoak daudela onartu du. Bigarren eskukoak saltzeko ere denbora gehiago behar dela dio.

Bi promozio nagusi daude Aretxabaletan; biak erreka bestaldeko eremuan. Bruesak 428 etxebizitza egiten diardu. Horietatik, 100 babes ofizialekoak dira, 230 tasatuak eta gainontzeko 98 libreak. "Babes ofizialekoak eta tasatuak esleituta daude". Ortuzar enpresak, bestalde, 131 etxebizitza libre egiteko asmoa du.

**ARRASATEN ARAZORIK EZ**

Arrasaten, bestalde, momentuz ez dela ezer berezirik sumatu jakinarazi digute. Aurreikusitako promozioak egiten ari direla aipatu du Hirigintza saileko Arantxa Sanzek. Horren harira, momentuz, inor ez dela atzera bota aipatu du.

Promozio asko daude, hainbat tamainakoak. Esaterako, Zabalkundeko eremuan dabiltza lanean. Han 418 etxebizitza aurreikusita daude. Uribarrin, berriz, 180 etxebizitzako beste promozioa eraikitzen dihardute. Lehenengo 84 eraikitzen hasi dira; horietatik 44 babes ofizialekoak dira.

"Interes tipoak oso baxuak zirenez, jendeak etxebizitzak pentsatu barik erosten zituen. Etxe berria erostea bigarren eskukoa erostearen parekoa zen". Egoera aldatu egin da.

Bergarako Arreta eraikuntza enpresako Basilio Sanchezek egoera "oso txarra" dela esan du: "Beherakada handia igarri dugu. Abuztuan hasi zen eta abendutik hona, egoerak okerrera egin du nabarmen. Izandako jaitsiera %50 ingurukoa da".

Eraikuntza arlokoekin hitz egin duela eta batzuk, dagoeneko lan egin barik daudela jakinarazi du: "Eraikuntzarekin loturiko gremioetan ere txarto daude, hala nola, elektrizitatea eta iturgintza. Oso arduratuta gaude guztiak".

Aurreko inmobiliarietako eta eraikuntza enpresetako ordezkariek bezala, Promociones Aramaixoko Miguel Angel Burgik ere salmenten jaitsiera sentitu du. Hamaika eraikin atxiki egiten dihardu Aramaion. Etxebizitzak amaitzear daude eta oraindik hiru ditu saltzeke: "Beherakada oso nabarmena da. Interesatuak etorri dira galdezka baina, hor geratu da dena".

Oñatiko Ugartekoekin bat egin du Burgik, "psikosi handia" dagoela aipatzean. "Euriborraren igoerarekin, jendea beldurtu da eta arreta handiz egiten du dena. Erabakia hartu aurretik, itxoitea nahiago dute, prezioen jaitsieraren zain".

**HAINBAT IRTENBIDE**

Irtenbidea alokairua izan daitekeela uste du Deba Garaia agentziakoak. Gaur egun, laguntzak ematen direla gogorarazi du. Horren harira, Europako hainbat herrialdeetan alokairuaren kulturak duen garrantzia azpimarratu. "Hemen, oraindik, etxebizitzak erostearen aldekoak gara. Hori aldatu beharra dago", aipatu du Markaidek.

Ugarte enpresaren ustez, denborak konponduko du gaur egungo egoera. Horrelakorik gertatzen den lehenengo aldia ez dela eta gorabeherak bizitzera ohituta daudela diote: "Eraikuntza eta promozio arloan ohikoak dira. Azkenean, ziklikoa da eta merkatua dagokion tokira itzuliko da. Hemendik aurrera etxebizitza gutxiago egingo dira eta eskaintzaren jaitsierak, eskaeraren handitzea ekarriko du". Hala, gogora ekarri du azken urteetan etxebizitza asko egin direla eta horrelakorik "pasa behar zela".

Anboton oraindik itxoiten daude. Egoera "kezkatzeko" modukoa ez denez, merkatuak eta interes tipoek hartzen duten norabideari begira daude. "Merkatua errekuperatuko da, salmentak motelagoak izango badira ere. Egoerari aurre egiteko gai diren inmobiliariak baino ez dira geratuko. Alegia, urte asko daramatzatenak".

Arretakoak ez dio irtenbiderik ikusten momentuz. "Gutxienez, bi urte pasa beharko dira egoera hobetzeko. Ez gaude geldi baina ez da lehengoa. Lehen hilero 40 bat aurrekontu eskatzen zizkiguten eta orain, hamar edo hamabi", dio Sanchezek.

Promociones Aramaixoko Burgik egoerak hobera egitea espero du. Ez dela hasi behar Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzen esan du: "Gure tamainuko enpresak ez dira horrelako promozioetan sartzen. Guk promozio txikiak egiten ditugu. Enpresa garrantzitsuak sartzen dira horietan". Azkenaldian hainbeste iragarri dena iritsi da azkenean gurera.



ETXEAK SALGAI Erretratuan, Bergarako etxebizitza salgai. M.B.


Irudian, Iñigo Maguregi. GOIENKARIA

**Iñigo Maguregi**> Eusko Jaurlaritzako Lurzoruko zuzendaria

## "Promozio publikoen balorea babeslekua izan daiteke"

**M.B.** > BERGARA

**Iñigo Maguregi Eusko Jaurlaritzako Lurzoruko zuzendaria da. Gaur egungo egoeraren gainean duen iritzia eman du ondorengo lerroetan.**

**Nola eragiten die egun bizi dugun krisi egoerak Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozioei?**

Promozio publikoen prezioen finkatzea araututa dago eta beraz, ez du eragin handirik eduki behar. Merkatu librean aurki daitezkeen prezioak, gainera, baxuagoak dira. Baina, erosle batzuek agian etxebizitza finantzatzean arazoak izan ditzakete. Babes Ofizialeko Etxebizitzetan sartu nahi duten pertsonak kanpo gera daitezke, banku etxeek edo aurrezki kutxek ez dietelako eskatutako kreditua onartzen. Baina, printzipioz, eragin gutxiago du, prezioak arrazoizkoak direlako eta hipotekak epe laburrean ordaindu daitezkeelako.

**Zozketan tokatutako etxeari ezin diola aurre egin eta ondorioz, atzera bota izan den pertsonarik joan al da zuengana?**

Kasuren bat edo beste izan dugu. Baina beste toki batzuetan kopuru hori askoz handiagoa da. Estatu espainiarrean etxebizitzen prezioak erreta daude. Euskal Autonomi Erkidegoko egoera ez da horren nabaria, inflazioa ez delako horren handia. Behin baino gehiagotan esan dugu hemen bizkortze ekonomikoak motelagoak direla eta balaztadak ere gutxiago nabaritzen direla. Gipuzkoaren kasuan, zaila da eskaintza larregi egotea. Etxebizitzen eskaintza arrazoizkoa izan da, Estatuarekin alderatuta.

**Eraikuntza enpresek dagoeneko esan dute lan gutxi dutela. Momentu ona izan daiteke horiek promozio publikoetan sar daitezen?**

Zalantza barik. Beti esan dugu promozio publikoen balorea babeslekua izan daitekeela. Irtenbide bat izan daiteke. Gizarteak behar dituen etxebizitzak egiteko aukera bat da. Merkatu libreak uzten dituen etekinak ez ditu uzten beste bide honek. Baina, esku hutsik ere ez dira joaten; etekin txikiagoa ateratzen dute horrekin. Enpresa jarduera mantentzea ahalbideratzen du horrek. Bai, argi dago amaitu direla. Finantzazio sistemak ez ditu horrelako operazioak jasaten eta bestelakoak bilatu behar dira, arrazoidunak direnak.

**Azkenik, alokairua bultzatzeko aukera ona izan daiteke?**

Guk behintzat lan egingo dugu hori horrela izan dadin. Etxebizitzen prezioak altuak dira eta irtenbide bat izan daiteke. Hemendik udalerriak animatu nahi ditugu, dituzten lurren zati bat alokairura bideratzeko.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**GARRAIOA** > JAURLARITZAK AZALPENAK EMAN DITU

# Udalekin adostu beharreko akordioek atzeratu dute tranbiaren proiektua

Lopez de Gereñu Garraio sailburuak Debagoieneko tranbiaren proiektuarekin lanean jarraitzen dutela berretsi du asteburuan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburuak Debagoieneko tranbiaren proiektuarekin lanean jarraitzen dutela berretsi du aste bukaeran. Gereñuren arabera, udalekin adostu beharreko akordioek atzeratu dute proiektua. Hasiera baten, tranbiak 28 kilometroko ibilbidea izango du gure ibarrean, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Eskoriatza zeharkatuz.

Herri barruetatik tranbiak izango lukeen ibilbidea adosten dihardute Jaurlaritzak eta Debagoieneko udalek, Gereñuk adierazi duenez. Hainbat alegazio aurkeztu dituzte ibarreko udalek (azkena Arrasateko udalbatzarena, oraingo agintaldian) eta horiei soluzioa topatu beharko diete datozen hilabeteotan.



**TRANBIA** Ibarreko trafikoa arintzeko soluzio egokia tranbia dela azpimarratu du PSE-EE alderdiak. GOIENKARIA

PSE-EE alderdiak Legebiltzarrera eraman zuen gaia ostiralean. Oscar Rodriguez PSE-EEko parlamentariak lanak oraindik hasi ez izana salatu zuen: "Jaurlaritzaren partetik utzikeria dago tranbiaren proiektuan. Jaurlaritzak oraindik ez dauka datarik aurreikusita lanak hasteko eta Garraio sailetik aitortu dute exekuzio epeak ez direla betetzen ari. Lanak lehenbailehen hasteko neurriak hartzeko eskatu nahi diogu Jaurlaritzari".

**PSE-EE: TRANBIA, BEHARREZKOA**

Rodriguezen hitzetan, "Debagoieneko komunikazio beharrak nabariak dira, trafikoa jasangaitza delako. Ibarreko errepideetan maiz sortzen dira auto ilarak. Hori gutxi balitz, kutsadura eta aparkaleku premiaren arazoak begibistan daude. Tranbiaren lanak lehenbailehen hastea komeni da, Debagoienean dauzkagun arazoei irtenbideak topatzen hasteko".

Gereñuk gogoratu duenez, tranbiaren proiektuak ez du eteNik izan eta lanean dihardute 2000. urtean abian jarritako egitasmoarekin. Herri barruetatik doazen tramuetan izan ezik, bestelakoetan lanean dabiltzala esan du Garraio sailburuak: "Edozein modutan, merezi du lehenbizi udalekin trazaketa adostea, hurrengo mendean tranbiak hor jarraituko du-eta".

## Erasoa Intxortako Ateari, Elgetan

Ezezagun batzuek hainbat pintada egin dituzte aste bukaeran Elgetan dagoen Intxortako Atea monumentuan. *España, una grande y libre* eta *Viva España* idatzi dute han, pintura horiz. Intxortako Atea iazko apirilean inauguratu zuten, gudarien omenez. Asentzion dagoen eskultura Juan Jose Arangurenena da. Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria bera egon zen iazko inaugurazioan. Orduan Ibarretxek esan zuenez, "ate horrek betiko egon behar du totalitarismoari eta indarkeriari itxita, eta etorkizunari eta Euskal Herriko nortasunaren eta askatasunaren defentsa demokratikoari irekita".




JOSETXO ARANTZABAL

> ENPRESA

## Garai anai-arreben Ipargama enpresa saritu dute

Mikel eta Miren Garai anai-arreba arrasatearrek daramaten Arabako Ipargama enpresa saritu dute Enpresa Digitala sarien VI. ekitaldian. Jaurlaritzak eta EAEko diputazioak bultzatutako entitatea da Enpresa Digitala. Sari banaketa ekitaldia eguenean egin zuten, Barakaldon. Teknologien aplikazioan iaz nabarmendutako EAEko enpresak saritu dituzten. Eraikuntza materialen gestio integralean sistema berritzaile bat abian jartzeagatik jaso dute Ipargamakoek aurtengo saria.





SVMS SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

ENPRESA > ELKARTASUNA

# Fagor Arrasateko bazkideek bi proiektu lagundu dituzte diruz

Iparraldeko Seaskako ikastola berrietan gelak janztea da proiektuetariko bat

Tindufeko kanpamenduetan Saharako emakumeendako etxe eraikitzen lagundu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Arrasaten, Donostian eta Markinan egoitzak dituen 500 bazkideko Fagor Arrasate kooperatibako bazkideek bi proiektu diruz lagundu dituzte elkartasun keinu moduan.

Kooperatiba 2004an ekonomikoki egoera onean zegoela eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ere onak zirela ikusita, hartu zuten erabakia bazkideek irabaziak partekatzeko. Fagor taldeko kooperatiba guztiek arauz irabazien %10 bideratu behar dute heziketako eta gizarte-sustapeneko funtsera. Diru hori erabiltzen da heziketarako, inguruko taldeei eta ekimenei diru laguntzak emateko eta elkartasun proiektuetarako.

Baina Fagor Arrasateko bazkideek, asmoa azaldu zuten horretaz gain, beste proiektu batzuek bultzatzeko: gure kultura ingurunean bat eta garapen bidean den herrialde batean bestea. Asmoak aurrera egiteko, ordea, bazkideen oniritzia beharrezkoa da eta batzarrean, botoen %85ekin, adostu zuten heziketako eta gizarte-sustapeneko funtsera bideratutako diruaz gain, irabazien %3 izatea proiektu horietarako.

**BI PROIEKTU: HEMEN ETA KANPOAN**

Kulturari eta euskarari bultzada eman asmoz erabaki zuten laguntza ematea Seaskari Iparraldean ikastolak eraikitzeko.

Gure mugetatik harago, berriz, Algerian, Aaiunen, Tindufeko kanpamenduetan, emakume sahararrendako etxe bat eraikitzeko dirua bideratzea izan zen beste proiektua.

Gaur egun, emakume sahararrendako etxea eta Iparraldeko ikastolak eraikita daude eta baita abian ipinita ere.

Abenduan inauguratu zuten El Aaiun-en Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamenduan Emakumearen Etxea. Fagor Arrasateko hiru bazkide izan ziren eurek diruz lagundutako proiektua bertatik bertara ezagutzen eta Saharako gobernuko ordezkarien esker ona jaso zuten egindako lanarengatik. Etxe horren helburua da indartzea Emakume Sahararren Elkarte Nazionala indartzea. Horretarako etxeak izan nahi du hezkuntza eta informazio gunea; emakumeak elkartzeko eta elkarri laguntzeko tokia. Era berean nahi dute etxe horren bitartez euren eskariak bideratzea eta bizitza publikoko hainbat alderditan parte hartzea emakumeek.

Bestalde, Iparraldeko Ikastolen elkarte den buru-belarri jardun duSeaskak Ziburun eta Lartzabalen kolegioak eraikitzeko eta janzteko lanean. Hain zuzen ere, ikastetxe horietako gelak ikasleendako modu egokian janztea izan da Fagor Arrasatek o bazkideek proiektu horretan egin duen ekarpena.


SAHARA Fagorreko hiru bazkide izan ziren Emakume Etxea ezagutzen. GOIENKARIA


SEASKA Ziburuko eta Lartzabalgo kolegioetako gelak jantzi dituzte. GOIENKARIA

**LEKUKOA BESTE ENPRESEI**

Bi urteren buruan ia 200.000 euro eman dituzte bi proiektu horietarako eta zehazteko dago oraindik hirugarren urtean emango duten kopurua..

Bazkideak harro daude egindako ekarpenarekin eta gainontzeko kooperatibetako eta enpresetako langileei eta bazkideei pasa nahi diete orain lekukoa beste proiektu batzuek lagun ditzaten.

EUSKARA

## Hitzarmena sinatuko dute Kutxak eta udalek

Erakundeek hartuko dituzte euskararen normalizaziorako konpromisoak

I.A. > ARRASATE

Bihar, martitzena, hizkuntza-normalizazioa helburu duen akordioa sinatuko dute Kulturaten, 11:00etan, Gipuzkoa Donostia Kutxak eta Debagoieneko udalek. Ekitaldian izango dira Debagoieneko alkateak, Kutxaren mendebaldeko zuzendaria, bulego zuzendariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendaria eta Kutxako giza baliabideen zuzendaria.

Hitzarmenaren bitartez, konpromisoa hartuko dute elkarren arteko harremanetan euskarari lehentasuna emateko eta Kutxak ibarrean dituen 14 bulegoetan, bezeroekiko harremanetan, euskararen presentzia indartzeko.

**BOST URTERAKO GUTXIENEZ**

Hitzarmenak gutxienez bost urteko iraupena izango du. Asmoa da neurtzea euskararen erabilera ohiturak eta horren arabera lehentasunak finkatzea neurriak hartzeko.

EAEko hiru Kutxek Jaurlaritzarekin hasi zuten bidea, eta geroztik Kutxa udalerrietara hurbildu da. Kontuan hartuta Kutxa dela Gipuzkoan erakunde publikoen artean herritarrekin maiztasunez harreman gehien dituen erakundea; nahi da egitasmo honekin aitzindariak izatea ondoren euskararekiko konpromisoa beste esparru batzuetara zabaltzeko.



Apirilaren 25etik 27ra egingo da Arantzazun Espainiako Yoga Federazioak eta Yoga Satsanga Federazioak antolatutako V. Kongresua. Besteak beste, hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, kontzertuak eta taldekako meditazioak egingo dituzte Gandiaga Topagunean. Kongresuan parte hartu gura dutenek izena emateko aukera dute oraindik.

**Amaia Elosegi** > Yoga irakaslea

# "Osasun fisiko, emozional eta mental orekatuagoa eskaintzen du yogak"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Amaia Elosegi (Tolosa, 1966) Hezkuntza Fisikoan eta Informazio Zientzietan lizentziatua, eta yoga irakaslea da. Gandiaga Topagunean egingo den kongresuko antolatzaile taldeko kidea da. Harekin berba egin dugu yoga sakonago ezagutzeko asmoz.**



Argazkian, Amaia Elosegi. GOIENKARIA

**Nork antolatu du Arantzazun egingo den yoga kongresua?**

Arantzazun apirilaren 25ean, 26an eta 27an egingo den Espainia Mailako Yoga kongresua, Espainiako Yoga Federazioak antolatu du, eta V. edizioa izango da. Aurrekoak Mallorcan, Jacan (Huesca), Benalmadenan (Malaga) eta Lleidan izan ziren.

**Zer da Yoga Satsanga Espainiako Federazioa?**

Duela bost urtera arte, yoga egiten genuen pertsona asko ginela bagenekien arren, ez genuen elkar ezagutzen. Eskola bakoitzak bere kabuz lan egiten zuen, eta yoga irakasle izateko eskaintzen zituen formazio ikastaroak desberdinak ziren. Hortaz, yoga hitzak batasuna esan nahi badu ere, nahikoa sakabanatuta geunden. Egoera horri irtenbidea emateko, Nafarroako Soaham yoga eskolak lehen kongresua antolatu zuen Mallorcan. Han elkartu ginen zortzi eskolek, Espainiako yoga federazioa sortu genuen, Satsanga izenarekin. Satsanga hitzak sanskrito hizkuntzan 'jakintsuen bilkura' esan nahi du. Gerora, urtetik urtera beste hainbat eskola sartu dira federazioan.

Beraz, ikuspegi eta teknika desberdinak erabili arren, helburu berberak dituzten elkarte, eskola eta yoga egiten dutenen elkartea da.

**Zergatik aukeratu duzue Arantzazu kongresua egiteko?**

Federazioaren sorrera bultzatu zuen eskolak Nafarroan du kokapena, eta Gipuzkoako jende dezente hurbiltzen da bertara. Hasieratik izan genuen buruan kongresua Euskal Herrian egitea, baina ez genuen une egokia ikusten. Yoga oraindik aski ezaguna ez zenez, behar bezalako oihartzunik izango ez zuela uste genuen.

Egun, Euskal Herriko hiri eta herri guztietan ematen dira yoga eskolak, besteak beste, zentro pribatuek, gimnasioek, kultura etxeek eta udalek antolatzen dituzte yoga eskolak. Bestalde, medikuek gaixoei yoga egitea aholkatzen diete. Hala, kongresua Euskal Herrian egiteko momentua iritsi zela ikusi genuen eta Arantzazu aukeratu genuen.

**Zeintzuk dira kongresuaren helburu nagusiak?**

Helburu nagusia parte hartzen dugunok elkar ezagutzea, eta gure ezagutzen eta esperientziak elkartrukatzea da. Era berean, herritarrei, komunikabideen bitartez, yogaren berri eman nahi diegu. Hain zuzen ere, zer den, zer lortzen den eta zergatik den mesedegarri zabaldu nahi dugu.

Halaber, gizartean, osasun fisiko, emozional eta mental orekatuago bat eskainiko duen bizimodu berria sustatu nahi dugu. Bestalde, eskola gehiago federazioan sartzera anima daitezen bultzatu nahi ditugu. Gainera, kongresua, urtero Espainiako herri desberdinetan egiten denez, kultura desberdinen topagune ere bada.

HELBURUA

**"Yoga kongresuaren helburu nagusia parte hartzen dugun 200 lagunak elkar ezagutzea da"**

PARTE-HARTZAILEAK

**"Yoga irakasleek eta ikasleek, eta osasun munduan lanean dihardutenek parte hartuko dute"**

DEBAGOIENEAN

**"Debagoienean, Oñatin eta Eskoriatzan, Sanatana Dharma eskolak daude"**

**Zenbat lagun elkartuko zarete Gandiaga Topagunean?**

Aurreko kongresuetako kopuruak kontutan hartuta, 200 bat pertsona elkartzea espero dugu.

**Zer egin behar du kongresuan parte hartu gura duenak?**

Izena emateko bi bide ditu: alde batetik, *www.federaciondeyoga.es* web orrian, eta beste alde batetik, 635 40 54 10 telefono zenbakian. Egun bakarrerako, bi egunetarako edo kongresu osorako eman dezake izena.

**Nortzuk parte hartu dezakete kongresuan?**

Kongresua irekia da, yoga egiten dutenendako edo yoga mundura hurbildu gura dutenendako. Bertan, yoga ikasle eta irakasleek, eta osasun munduan lanean dihardüten profesionalek parte hartuko dute. Argi utzi nahi dugu yoga 5.000 urte baino gehiago dituen zientzia dela, eta guztion ondarea dela.

**Ze egitarau osatu duzue kongresurako?**

Guztira, 14 eskolatako kideak elkartuko gara. Egubakoitzetik domekara hainbat ekitaldi burututo ditugu, besteak beste, hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, kontzertuak eta taldekako meditazioak. Goizetan, gosaldu aurretik, guztiendako energia mobilizazioa eta meditazioa egongo dira.

Bestalde, Baketik elkarteko Jonan Fernandezek kongresuaren irekiera hitzaldia eskainiko du. Dena den, egitarau osoa *www.federaciondeyoga.es* orrian ikus daiteke.

**Zer da yoga?**

Yoga hitza sanskrito hizkuntza zaharretik dator, eta elkartasuna edo batasuna esan gura du. Beraz, yoga, buru eta gorputzaren batasuna da, gorputz eta arimarena, gure alde femenino eta maskulinoarena, gure iluntasun eta argiarena... Bizi garen mundu dual honetan, muturrekoak diruditen arloak, kontzeptuak edo sentimenduak benetan izate bakarraren bi mutur direla erakusten du, eta beraz, elkarrengandik oso hurbil daudela: esate baterako maitasuna eta gorrotoa, bakea eta gatazka, etsaia eta adiskidea, eta bikote guzti horien batasuna bilatzen du.

Baina ikuspegi orokorrago batetik, yoga bizi filosofia bat da, mundua ikusteko modu bat, eta gutako bakoitzak dugun izaki gorenarekin harremanetan jartzeko modua. Yogak zortzi atal edo arlo lantzen ditu, eta gehienok ezagutzen dugun hatha yoga, horietako bat da. Behar bada jendearengana hurbiltzeko errazena, erakargarriena; baina, yogaren muga hori baino asko urrunago doa.

**Zenbat lagunek egiten dute yoga?**

Ez dugu datu zehatzik. Badakigu, 1.000 zentro inguru daudela. Baina, ez dakigu zenbat lagunek egiten duten yoga. Bestalde, Euskal Herrian 33 zentroetako datuak ditugu. Baina, jakin badakigu, 100 bat zentro daudela.

**Debagoienean ere yoga eskolak badaude.**

Oñatin eta Eskoriatzan Sanatana Dharma eskolak daude. Bestalde, kiroldegietan, erretiratuen elkarteetan, eta gimnasioetan ere yogako klaseak ematen dituztela badakigu.

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 1979an jaiotakoek ospakizuna izango dute**

1979an jaiotako bergararrek kinto ospakizuna izango dute apirilaren 19an Tartufon. Izenematea zabalik dago; 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 11 0090081875 kontu korrontean.

BERGARA
**> 1970ean jaiotakoen lehen kinto ospakizuna**

70ean jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute apirilaren 12an. Lehenengo, Ariznoa tabernan batuko dira, 20:00etan, eta Azpeitxi jatetxean afalduko dute gero. Izena emateko, 20 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 12 0091121307 kontu korrontean apirilaren 10a baino lehen.

OÑATI
**> Erretiratuek urteko batzarra egingo dute**

Pake Leku elkarteak urteko batzarra egingo du etzi, eguaztena, 16:30ean; 17:00etan, bigarren deialdian. Zuzendaritza berritzea izango da gaietako bat.

BERGARA
**> Angiozarren elkartea sortu nahi dute**

Angiozarren elkarte gastronomiko-kulturala sortzeko bazkide bila dabiltza. Elkarte euskalduna izango da eta gizonezkoak nahiz emakumezkoak hartuko ditu. Familia girokoa izan nahi du. Izena emateko, deitu 669 56 74 07 edo 605 74 58 28 telefonoetara, apirilaren 30a baino lehen.

ARRASATE
**> Ludoteka ibiltaria, Garagartzan**

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria Garagartza auzoko Patxixenan egongo da datorren zapatuan, hilak 12, 11:00etatik 13:30era, Garagartzako eta Gesalibarko 3-12 urte bitarteko umeendako.

ARRASATE
**> Mugak eta komunikazioa familian, berbagai**

Arrasate Herri Eskolak antolatuta, Isabel Gonzalez psikologo klinikoak *Limite eta komunikazio beharrak familian* hitzaldia egingo du eguenean, hilak 10, Erguinen, 18:30ean. Jarduera praktikoak ere izango dira. 6-12 urte artekoen gurasoei zuzenduta dago.

BERGARA
**> 1965ean jaiotakoek afaria egingo dute**

1965ean jaiotako bergararrek anai arteko afaria egingo dute apirilaren 26an Txarrantxa jatetxean, 22:00etan. Aurretik, Pol-Polen batuko dira, 19:00etan. Izenematea zabalik dago Ariznoa, Etxagi eta Pol-Pol tabernetan, edo 639 56 29 25 telefonora deituta (Karlos) edo *ketxaniz@euskalnet.net* helbide elektronikoan.

ARRASATE
**> DBHn matrikula egiteko epea, zabalik**

Arrasate Institutuan DBH egiteko matrikulazio epea apirilaren 11ra arte, egubakoitza, dago zabalik.

OÑATI
**> Eski irteera apirilaren 12an eta 13an**

Aloña Mendik eski irteera antolatu du, Gavarnie ingurura, apirilaren 12an eta 13an. Zapatuan 06:00etan aterako dira eta domekan 20:00ak aldera iritsiko dira. Izenematea Aloña Mendi tabernan egin daiteke, apirilaren 9a baino lehen. Bazkideek 70 euro eta gainerakoek 75 euro ordaindu beharko dituzte. Argibide gehiago: 943 78 08 10 edo 943 71 60 57 .

OÑATI
**> Bertsolari beteranoen bertso-afaria**

Isidro San Miguel, Xabier San Miguel, Benito Barrena eta beste bertsolari batzuek afaria egingo dute apirilaren 19an Nekazarien Elkartean. Nikolas Segurola izango da gai jartzailea. Txartelak salgai daude, 12 eurotan, Pako eta Guria tabernetan.

BERGARA
**> Sendabelarren gaineko ikastaroa, laster**

Sendabelarren inguruko ikastaroa antolatu du Udalak. Izenematea zabalik dago, kultura etxean. Bergararrek 15 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, 20. Argibideak: 943 77 91 60.

BERGARA
**> San Joxepekoen irteera, irailean**

San Joxepe erretiratuen elkarteak Gaztela eta Leonera eta Extremadurara irteera antolatu du irailaren 18tik 24ra bitarterako. Izena emateko aukera dago ekainaren 4ra bitartean, euren egoitzan.

BERGARA
**> Euskara elkarteen ibilbidearen gaineko erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena**

Topagunea euskara elkarteen federazioaren 10. urteurrena dela eta, euskara elkarteen ibilbidearen gaineko erakusketa egongo da gaur, astelehena, hasi eta hilaren 19ra bitartean Bergarako kultura etxean, honako bisita ordutegian: astegunetan, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Usoa Agirre** > Telematika saileko arduraduna

# Txikitan bizitakoak, beti gogoan

Aurten 27 urte betetzen ditugu, gazteak gara, baina gazteak izanda ere pozik gogoratzen ditugu gazteagoak (eta txikiagoak) gineneko garaiak. Zapatua horretarako eguna izan genuen 1981ean jaiotako antzuolarrok. Afaria egin genuen eta 22 lagun elkartu ginen. Gehienok Antzuolan edo inguruan bizi arren ez dugu elkar asko ikusten; lana dela edo bestelako konpromisoak direla bakoitza gure martxan ibiltzen gara.

Joan den urtean kale egin genuen, baina bi urteren ondoren elkartu ginen zapatuan berriz. Bakoitza non dabilen lanean, non bizi den, zeinekin... “kaixo, zer moduz” esan bezain laster. Bide ezberdina hartu dugu bakoitzak, baina bada elkartzen gaituen gauza bat: 13 urtez eskolan (eta herrian) elkarrekin ibili izana. Oraindik ere atzo izan balitz moduan gogoratzen ditugu eskola aurreko kaki arbola, gelako kanario eta hamsterrak, San Josera edo Arimendira egiten genituen irteerak, bakoitzaren gelako “ligeak”...

**"Atzo izan balitz moduan gogoratzen dugu eskola aurreko kaki arbola"**

Urtero gauza berdinetaz akordatzen gara, eskola garaiko kontuez. Baina zelako barreak egiten ditugun!

**> Hurrengo urteko kinto-afaria ere antolatu beharko du norbaitek. *Polua*-k antolatu du aurtengoa berak bakar-bakarrik (ederki, gainera). Hurrengo urtekoa zeinek? *Tika*, Maitane... animatzen?**

**> Hasi dira kintakoak ezkontzen, umeak edukitzen... Seguru, hemendik 20 urtera ere, denok gure bizimodua osatua dugunean, kinto-afarian elkartu eta txikitakoetaz akordatuko garela.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Joxe Zubizarreta**> Aretxabaleta

# "Oso gustura bizi naiz Gasteizen, ez nintzen ezergatik bueltatuko"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARETXABALETA

**Orain dela 25 urte bere jaioterria utzi eta Gasteizera joan zen bizitzera Joxe Zubizarreta. 30 urte inguru Arrasateko Fagor Ederlan-en lan egin ostean, egun erretiratuta dago. Gasteizko bizimodura erabat ohituta dagoela aitortu digu.**

**Zergatik utzi zenuen Aretxabaleta Gasteizera joateko?**

1983an ezkondu nintzen eta emaztea Gasteizkoa da. Badakizu, ohikoa gertatzen den moduan emaztearen herrian bukatu dut bizitzen.

**Nolako aldaketa izan zen zure jaioterria utzi eta Gasteizera joatea?**

Aldaketa nahiko gogorra izan zela aitortu beharra daukat. Hona etorri nintzen lehen urtea oso gogorra izan zen niretzat. Hala ere, gaur egun oso gustura bizi naiz Gasteizen.

**Zure Aretxabaletako lagunekin ba al duzu harremanik?**

Egia esan, oso gutxitan pasatzen naiz Aretxabaletatik. Familiartekoekin bazkariren bat dudanean joaten naiz, besterik ez.

Herrira etortzen naizenean, gainera, gutxitan elkartzen naiz koadrilakoekin, ez dakit-eta nondik nora ibiltzen diren. Beraz, asko galdu dut nire lagunekin nuen harremana.

**Nongo bizimodua duzu nahiago, Aretxabaletakoa edo Gasteizkoa?**

Gasteizkoa, zalantzarik gabe. Hasiera gogorra egin zitzaidan arren, erabat ohituta nago Gasteizko bizimodura. Mendizorrotza futbol zelaiaren inguruan bizi naiz, hiriko periferian. Batetik, lasaitasuna daukat eta, bestetik, hiriak eskaintzen dituen erraztasunak oso gertu ditut. Lehen, Eibar edo Donostiara joan behar nintzen orain hemen bertan eskuratu dezakedan edozer lortzeko.



GOIENKARIA

**Mende laurdena Gasteizen**
Arrasaten lan egiten zuen arren Gasteizen bizi da Joxe Zubizarreta eta han daraman bizimoduarekin oso pozik dago.

**Zein ezberdintasun nabarmenduko zenuke Gasteizko eta Aretxabaletako jendearen artean?**

Hemen arabarrak dira, eta argi dago izaera berezia dutela. Euretaz fidatzeko orduan, esaterako, kontuz ibili behar da.

**Zer eramango zenuke Aretxabaletatik Gasteizera?**

Ez zait handik hona ekarriko nukeen ezer bururatzen. Baina orain dela gutxi ama hil zitzaidan eta Aretxabaletan bizi zen arren, oraindik ere asko botatzen dut faltan. Ama, beti da ama.

**Pentsatu al duzu inoiz Aretxabaletara bizitzera etortzea?**

Ez. Esan dudan bezala, oso ohituta nago hemengo bizimodura. Ez nintzen ezergatik jaioterrira bueltatuko.

**Ez dirudi herrimin handirik duzunik...**

Gustura nago hemen. Horrek ez du esan nahi nire herrian gertatzen denak axola ez didanik.

Herrira joan izan naizenetan tristura sentitu izan dut kaleko giroa ikusita. Nire gazte garaietan herrian giro ederra egoten zela gogoratzen dut. Orain, ordea, herrian ez da girorik; kaleak hilda daude.

**kale inkesta**

# Zein iritzi daukazu Realeko presidente Iñaki Badiolaren gainean?



**Jaime Rodrigo**
Erretiratua
Bergara

Hasieran ilusioa ekarri zion jendeari, baina orain ez dihardu ondo. Gainera, hain denbora gutxian hiru entrenatzaile ekartzea gehiegizkoa da eta oraingoa baliteke futbolean jakituna izatea, baina ez da hain ona.



**Jose Mari Lete**
Erretiratua
Bergara

Nire ustez bere lana ondo egiten dihardu. Entrenatzaileak aldatu baditu uste dut izan dela aldea dagoelako batetik bestera. Baina lanean nork balio duen ez da jakiten lehen egunetik, hortaz denborak esango du.



**Ane Kapanaga**
Langilea
Bergara

Entzun ditut Badiolaren gainean kontuak, baina ni Athletic zalea naiz eta ez dakit ezer garbirik presidenteari buruz. Hala ere, nire nahia da talde guztiei gauzak ongi ateratzea, ez naiz Realaren aurkakoa.



**Ainhoa Carazo**
Langilea
Bergara

Errazena da entrenatzaileari eta presidenteari errua egoztea, baina jende asko dago atzean. Reala etsita dago eta gauzak ez dira egun batetik bestera konpontzen. Txarrena da futbolak diru asko mugitzen duela,

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Txaloak Emakume Txoko arduradunei**

Hirugarren urtez emakumearen gaien gaineko zinema zikloa antolatu dute Emakume Txokokoek. Arrasateko emakume batek antolatzaileak zoriondu nahi ditu, eguenero film erakargarriak ekartzearren. Eguenean eman zuten lehenbizikoa eta erabat interesgarria iruditu zitzaion irakurle honi.

BERGARA
**> Errepidea egoera txarrean Amilagan**

Bergarako gidari batek deitu digu telefonoz, Amilagako errepidearen egoera txarraz ohartarazteko. Haren arabera, Jam diskoteka ingurutik gasolindegiraino doan tartea zuloz beterik dago. Lehenbaileen konpontzeko eskaera luzatu nahi die horren ardura dutenei. Arriskua handia da gidarientzat zein handik ibiltzen diren oinezkoendako.

OÑATI
**> Babes ofizialeko etxeen zozketaren zain**

Oñatiko irakurle batek haserre deitu du babes ofizialeko etxeen zozketak noiz egin behar diren galdetzeko. "Kurtiderixa izeneko eremuan egin behar dituzten 48 etxe tasatuetarako 35 lagunek besterik ez dute izena eman", dio irakurleak. "Udala ez al da konturatzen herritarrak babes ofizialeko etxeei begira daudela?", gaineratu du. Horrenbeste etxe eraikitzen hasi aurretik, zozketak egin ditzatela eskatu du irakurleak.

**usteak uste**

Irati Agirreazaldegi

# Gorri eta hori; zer da hori?

Bilboko udaletxean ipini berri dute Espainiako bandera, ikurrinarekin batera. Haizeak laster eramango omen ditu piper potoaren koloreak Donostia aldera, azken berrien arabera. Dantzan dabiltza margo horia eta gorria batetik bestera eta haizeak ez dakigu baina norbaitek bidali ditu horien zantzuak gurera.

Intxortako Atea gorri eta hori. Norbaiti bururatu zaio ideia hori; baina nori? Egin duen kaltea eta askorengan sortu duten mina eta haserrea zenbatekoa den badakite jakin, eta gainera ongi.

*Viva España* eta bandera gorri-horiaren margoak non eta Elgetan. Gerraren zantzurik minenak gorderik zirelakoan garai bateko Intxortako lubakietan, banderen gudua hasiko ote da margoetan?

**zorroztailea**



Juan Luis Azkarate

# Mondragon

"MCCren irudi korporatibo berriak, maiatzatik aurrera ezarriko dena taldeko kooperatibetan, beste multinazional handi batzuen antzera, leloa ingelesez dakar. Olinsek, besteak beste, Nokia eta bere *connecting people*; Siemens: *global network for innovation* edo Panasonic: *ideas for life* aipatzen ditu."


ALTO DEBA
El nombre de Mondragón, «porque es el lugar que vio nacer este gran proyecto»
El PSE-EE comunicará hoy si acude o no al Pleno ordinario que celebrará la Corporación

El Diario Vasco > 2008/04/03

Beharbada, geografikoki hurbilen gaudenok ez dugu hainbeste baloratzen, gure egunerokotasunean ia txertaturik dagoen zerbait delako, baina Mondragoeko kooperatibena mundu mailan aztertzen den fenomeno bitxia da, diferentea; eta bost kontinenteetako jende asko hona etortzen da eredu ekonomiko desberdin hau bertatik bertara ezagutzera.

Kooperatibismoaren balio ezberdin horiek, jabetza partekatua, partizipazioa, eta abar, *Humanity at work* edo *Gizatasuna lanean* lelopean, korporazioaren arimaren ispiluan (horrela definitu dute TU Lankide aldizkarian irudi grafiko berria) islatuko dira hemendik aurrera. Aldaketa honi esker, oraindik ezagutzen ez duenak, hobeto ezagutu eta baloratuko du zer den Arrasateko kooperatiben mugimendua, munduko handiena.

Eta balio hauek gainean eramanda, irmoki eutsi beharko diola Mondragonek, aurrerantzean ere, bere jatorrizko izaerari. Halako deiturak une oro aldian eramanda, zailagoa omen markatutako bidetik irtetzea.

**"Kooperatibena munduan aztertzen den fenomenoa da"**

**"Espero dezagun MCCren sinbologiak bestelakoak baino indar handiagoa izatea"**

Irudi berria medio, Mondragon leku sinbolikoen mapamundian kokatu da, korporazioak betidanik baliatu dituen balore unibertsal batzuk bereganatuz. Aurretik doa niri gustatu zaidala irudi aldaketa hau, bai sinboloa (bi pertsona elkarri bostekoa ematen M hizki bat marraztuta) eta bai leloa. Esan ohi da hemen ez dakigula gure burua saltzen, eta uste dut irudi korporatibo berriak lagunduko diola MCCri hobeto saltzen bere burua, bere balioak aldarrikatzen, inolako konplexurik gabe. Leku gehienetan egiten duten bezalaxe.

Hala ere, aukeratutako bideak badu bere arriskua. Aspaldi honetan, eta lehenago ere gertatu izan da behin baino gehiagotan, Mondragon hitzak bestelako konnotazio batzuekin ere lotzen da, albistegietan lartxo agertzearen ondorioz, eta gehienetan ere balio sinboliko bat bilatuz modu interesatuan. Espero dezagun MCCk bilatutako sinbologiak bestelakoak baino indar handiagoa izan dezan.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Jon Berezibar, Irati Agirreazaldegi, Julen Iriondo **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 10 **Bergara** > 11 **Oñati** > 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
**Antzuola** > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14



**> ARRASATE**
PPk aurkeztutako mozioa ez zen onartu alkatearen kalitateko botoarengatik **> 10**



**> BERGARA**
San Martin ikastetxeko hiru gela kokatu dituzte Martinez Iralako eraikin txikian **> 11**



**> ARETXABALETA**
Arrasaterako errepidea garbitzen ibili dira; bidearen egoeragatik kexa ugari izan dira **> 13**

**ARRASATE** > EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA

## Hezkuntza sistema propioa eskatzeko ekimena Arrasaten abiatu dute

**DINAMIKA**
Bi hilabete iraungo duen dinamika herriz herri zabalduko dute

**ARGAZKIAK**
Nahi dute argazkien bitartez herritarren atxikimendua irudikatzea

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Euskal Herriak Bere Eskolak (EHBE) Arrasate aukeratu zuen, egubakoitzean, *Herriz herri, egunez egun, urratsez urrats... Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzen* lelopean maiatzaren 31ra bitartean iraungo duen dinamika aurkezteko.

Helburua da hezkuntza sistena nazionalaren aldeko aldarrikapena agerian uztea eta egindako lana erakustea. "Mundu globalizatu honetan bizirik irauteko herri guztiek behar dute hezkuntza sistema propioa. Zoritxarrez, euskaldunok, ez daukagu eta ekimenaren bidez hezkuntza sistema propioa aldarrikatu nahi dugu herriz herri", azaldu digu EHBEko kide Ibai Redondok.

**HERRIA ETA HEZKUNTZA URRUTI**

Hezkuntza sistema propioaren beharra azaltzeko Ibai Redondok dio: "Hezkuntza sistema bat eraikitzea guztion onerako da hizkuntza berreskuratzeko, kultura bultzatzeko eta ekonomiaren eta gizartearen garapenerako. Herria eta hezkuntza elkarrengandik urruti ikusten ditugu eta horrek zaildu egiten du gure aldarrikapenak lortzea. Nahi dugu herria eta ikastetxeak gerturatzea".

Euskal Herrian hainbat taldek dihardu hezkuntza sistena nazionalaren alde lanean eta EHBEk guztiak elkartzeko eta indartzeko beharra ikusi du. "Hezkuntza sistema propioaren aldeko aldarrikapena herritarra den aldetik bat egin dute ikasleek, langileek, ikastetxeek… Askotan aldarrikapena eta lana norberak bere esparruan egiten zuela eta hezkuntza mugimendu indartsua lortzeko elkarlanerako beharra zegoela ikusita, EHBE sortu zen. Saiatzen gara eragileak harremanetan jartzen eta ahal den neurrian pausuak elkarrekin ematen", dio Ibai Redondok.

**ERAGILEAK BATERATZEKO BEHARRA**

Aldarrikapen horiek aireratzeko dinamika soziala abiarazi du gurean EHBEk. Kulturaten herritarrendako aurkezpen irekia egin zuten ikastoletan, ikastetxe publikoetan, ikasle zein langile mugimenduan lanean diharduten eragileek eta EHBEn lanean dihardutenek eta jardundakoek.

Arrasateko aurkezpenaren ostean, ibarrean izan dira aste bukaeran dinamika horrekin bat egin duten beste bi herri ere: Aretxabaleta eta Bergara. Arrasaten bertan zapatuan erakusketa, Hainbat taldearen kontzertua eta trikipoteoa izan ziren.

Aretxabaletan ere ikusgai izan zen frankismo garaitik gaur egunera arte hezkuntza sistema nazionala eraikitzeko eman diren urratsak panelen bidez azaltzen duen erakusketa. Horretaz gain, zapatuan kalejira egin zuten gaita joleekin, baita argazkia atera ere, beste herrietan bezala. "Badakigu herritar askok egin duela lan eskoletan euskararen eta euskal curriculumaren alde eta nahi dugu argazkien bitartez herritarren atxikimendua irudikatzea", azaldu digu Redondok.

Bergaran, egun osoan barrena egin ziren ekitaldiek arrakasta izan zuten. Goizean Jose Luis Elkorok hitzaldia egin zuen; arratsaldean ume mordoa ibili zen jolasetan eta iluntzeko ekitaldiaren ondoren, Pol-Pol taberna gainezka egon zen Emonen kontzertuan.

Dinamika ibarrean abiarazi ostean, oraindik "egiteko dezente" dagoela dio Redondok: "Gure egiteko nagusia aldarrikapena da eta indar sozialak biltzea hezkuntza sistema hori eraikitzeko. Azken urteotan pausu handiak ematen dihardugu, esaterako, euskal unibertsitatearen proiektua, euskal curriculuma... Beste erronka handi bat, da Euskal Herriko ikasle guztiak euskalduntzea".




**ERAGILEAK** Arrasateko Kulturaten elkartu ziren Euskal Herriak Bere Eskolaren ekimenarekin bate egin zutenak. JOSETXO ARANZABAL

### Jose Luis Elkororen bizitza liburu batean jasotzeko lanean dihardute




Ibai Redondo, Jose Luis Elkoro eta Maite Aristegi Bergarako udaletxean. EDU MENDIBIL

EHBEko ekimenen barruan hitzaldia izan zen zapatu goizean Bergarako udaletxean. Ibai Redondok ekimenaren berri eman ostean, Maite Aristegik aurkeztu zuen Jose Luis Elkorok egin beharreko hitzaldia.

Hitzaldiaren izenburua izan zen *Trantsizioa Bergaran eta Monzon* eta batez ere trantsizioa izan zuen hizpide Elkorok. Azaldu zuen nolabaiteko egitura sozial falta zegoela frankismo garaian herrian eta udaletxean aldaketaren beharra zegoela eta horri aurre egiteko Alkartu-Nai elkartea eratu zutela 5.000 herritarren laguntzaz. Eurek ipinitako diruarekin oinarrizko beharrei egin zieten aurre: anbulantzia, Bergarako Ikastola bultzatzea, ezinduei laguntzea...

Ondoren, Elkoro udaletxera iritsi zen herritarren laguntzaz eta lan sozialean ez ezik lan politikoan ere hasi zen. Alkateen mugimendua hartu zuen ahotan eta herriaren batasuna handia zela gogoratu zuen. Ikurrinaren legeztatzeaz eta Estatutu proposamenaz ere jardun zuen eta azken hori egun egin den marko demokratikorako proposamenarekin parekatuz. Hori guztia anekdotaz eta berari gertatutakoen kontakizunez jantzita.

Kontatzeko mordoa du Jose Luis Elkorok eta askok eskatu dio bere bizitza liburu batean jasotzea. Horretan dihardute unibertsitateko hainbat ikaslek eta irakaslek eta espero dute urtebetean kalean izatea Elkororen biografia.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# EAE-ANVren gaitzespen ezak PPren salaketa gogorrak eragin zituen osokoan



OSOKO BILKURA Ezkerretik eskumara, PPko eta EAJko ordezkariak, eta Ino Galparsoro, alkatea, sartzen. UBANE MADERA

PPk aurkeztutako mozioa ez zen onartu alkatearen kalitateko botoarengatik; sozialistak ez ziren egon

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Tentsio politikoa. Horiexek dira egueneko osoko batzarra laburtzen duten bi berbak. Alderdi Popularrak ETAren agiria gaitzesteko aurkeztu zuen mozioak eragin zuen, hain justu, Eusko Abertzale Ekintza eta PPko ordezkarien arteko dialektika gogorra.

**BERDINKETA**

Mozioa ez zen onartu. PSE-EEko lau zinegotziak eta EAJ eta EB-Zutik koalizioko zinegotzi bana faltan, zazpina berdindu zuten mozioaren aldeko eta kontrako botoek: alde bozkatu zuten EAJ (3), EB-Zutik (2), EA (1) eta PPk (1); kontra bozkatu zuen EAEk (7) eta Aralar abstenitu egin zen (1). Alkatearen kalitate botoak hautsi zuen berdinketa, mozioa ez onartzeko.

**EZTABAIDA GOGORRA**

Hortxe hasi zen EAE eta PPren arteko eztabaida politikoa. Izan ere, Itziar Lamarain ordezkari popularrak gogora ekarri zuen egubakoitzean lau aste bete zirela Isaias Carrasco hil zutenetik, eta adierazi zuen ez duela ulertzen "zela egon daitezkeen halako zerbait gaitzesten ez duten herritarrak". Horrekin batera, Ino Galparsoro alkateari zuzenean galdetu zion ea gaitzesten duen ETAren agiria, elkartasuna adierazteko eskatu zion, "ETAren terrorismoa deslegitimatzeko" eta "etika eta duintasuna" mantentzeko.

Galparsorok, gogor erantzun zion Lamaraini esanez ez direla erori behar gaitzespenen "joko horretan". Gaineratu zuen Arrasaten bizi dugun egoera "gatazka politiko baten ondorioa" dela eta gatazka hori konpontzeko aurreneko urratsa dela onartzea "bi alde daudela". Esan zuen baita ere "demokrazia leziorik" ez diola PPk emango, alderdi horrek "urtetan izan duen ibilbidea" ikusita.

Erantzun horren aurrean, Lamarainek erantzun zion gatazka politikoa konpontzeko "ETAk hiltzeari utzi beharko diola", badela ordua "ETAk bakean uzteko herri hau, ito egiten duelako" eta hori gertatzen denean eseriko direla "guztiak batera berba egiteko". Ino Galparsorori aurpegiratu zion, baita ere, eurek zuzenean inor hil ez arren, ez dituztela halakoak gaitzesten.

**KRITIKAK EAJ-RI ERE**

Kritika zorrotzak egin zizkion, baita ere, EAJri, Arrasaten zentsura mozioa aurkeztu zen aurreko aldian hura babestu zutelako eta orain ez dutelako halakorik egin. Zalantzan jarri zuen jeltzaleen etika politikoa esanez zentsura mozioan euren (EAJren) alderdiko hautagaia aurkeztuko balute alkate izateko, orduan seguru EAJk mozio horren alde egingo zuela.

**SOZIALISTEK ALKATETZA GURA**

EAJri dagokionez, oraingoz PSE-EEren zentsura mozioa babestu ez duen arren, egueneko batzarrean babesa eman zion PPrenari, eta Urkullu EBBko presidentearen berbetan, aurrera begira haratago joango dira baldin eta EAEk ez badu gaitzespenik egiten.

Jose Luis Rodriguez Zapaterok EAJren erabaki hori txalotu egin badu ere, azpimarratu du Arrasatek alkatetzan derrigor behar duela aldaketa. Gauzak horrela, badirudi ezegonkortasun eta tentsio egoera hau ez dela oraingoz bukatu.

**ZERBITZUAK** > AUTOBUS URBANOA

# Urbanoak bidaiari gehiago izan zituen iaz, aurreko joera aldatuz

Erabilera behera zihoan 2003az geroztik; iaz, aldiz, erabiltzaile gehiago izan zituen, 2.851, hain zuzen ere

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Arrasateko autobus urbanoa gehiago erabili zuten herritarrek iaz 2006an baino; hain zuzen ere, iaz 176.582 bidaiarik erabili zuen herriko autobusa, 2006an baino 2.851 gehiagok. Bidaiari horietatik gehienek, 86.552 lagunek, lehenengo linea erabili zuen; bigarren lineak 82.283 bidaiari izan zituen.

2006tik 2007ra, urbanoaren erabilera 1,64 puntu igo zen. Horrek joera aldaketa erakusten du, izan ere, 2003az geroztik, behera egin zuen erabilerak: hala, 2003an 194.306 erabiltzaile izan zituen, orain arte urterik urteko kopururik altuena; 2004an, 2.000 inguru bidaiari gutxiago izan zituen; handik 2005era, 4.421 gutxiago; eta 2005etik 2006ra, 6.721 gutxiago. Udaleko Amaia Arana arduradunaren esanetan, Udalak "espero" du "erabilerak igotzen jarraitzea".

**BONOBUSEZ, %62K**

Bonobusez ordaintzen dutenen kopuruak etengabe egin du gora; iaz, bidaiarien %62ra iritsi zen. Amaia Aranaren esanetan, "ulertzekoa da bonobusa gero eta gehiago erabiltzea, askoz merkeagoa baita: txartela euro bat da, eta bonobusez, berriz, 58 zentimo".

Horrez gain, egubakoitzetan erabili izan da gehien autobusa hasiera-hasieratik; Udalaren esanetan, merkatu txikia egiten delako eta mugimendu handiagoa dagoelako. Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 12:00etara erabiltzen da gehien.

Bestalde, Udalak egin dio Gipuzkoako Foru Aldundiari informazio eskaera, urbanoa txartel bateratuan sar dadin egin beharreko tramiteen gainean.

**Autobus urbanoa, iaz**

| | 2007 |
|---|---|
| Bidaiariak | 176.582 |
| Batez beste egunero | 586 |
| 1. lineako bidaiariak | 86.552 |
| 2. lineako bidaiariak | 82.283 |
| Zerbitzu bereziak | 5.150 |
| Bonobusez ordain. | %62 |
| Bidaia gehien | Egubakoitza |

> ANTZERKIA

## Haurrei zuzendutako 'Lorategian' antzezlana izango da zapatuan, hilaren 12an, Amaian

Teatro Paraiso antzerki taldeak 1 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikuskizuna eskainiko du zapatuan, hilaren 12an. Ikuskizunerako plazak mugatuak dira, 90 guztira, eta lau eurotan salgai daude sarrerak.

Udaleko kultura sailetik jakinarazi dutenez, ikuskizunak "aukera paregabea" eskaintzen du haurrek antzerkiarekin bere lehen harremana izan dezaten. Haurrek interpretazioaren munduarekin –eskenatokia, argiak…– izango duten lehen kontaktua izango da eta horregatik, antolatzaileek gurasoak animatu nahi dituzte euren seme-alabak ikuskizunera eramatera.

Sarrerak leihatiletan, kutxazainetan eta Interneten daude salgai. Antzezlana zapatuan izango da Amaia antzokian, 17:00etan.

> UDALA

## Udalak eskerrak eman dizkie Sanjosepeko harrobiaren ideia lehiaketan lagundu dutenei

Prentsa ohar baten bitartez helarazi dutenez, Udalak eta herritar talde batek komunean gauzatutako proiektu honek jasotako babes profesional eta teknikoa, eta eskuratutako diru-laguntzak ezinbestekoak izan dira ideia lehiaketa abiarazteko. Baldintza horiek lortu ahal izateko Arrasateko alderdi politikoen laguntza nabarmendu dute Udaletik.

Bestalde, aipamen berezia egin diote diru-laguntza eman duten erakundeei eta enpresei. 168.000 euroko laguntza eman dute, besteak beste, Mondragon kooperatiba taldeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Proposamenekin Kulturaten erakusketa egingo dute, herritarren iritzia jasotzeko asmoz.



ERAIKIN TXIKIA Irudian Martinez Iralako eraikin txikia. Horra eroango ditu hiru gela San Martin eskolak. JOSETXO ARANTZABAL

**HEZKUNTZA** > MARTINEZ IRALA ERAIKINA

# Partekatzeko gertu dago Martinez Irala eraikina

San Martin eskolaren hiru gela kokatuko dituzte Martinez Iralako eraikin txikian; Aranzadik eraikin handiko pasilloan kokatu ditu bere hirurak

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
San Martin Agirre eskolatik bidalitako prentsa oharrean jakitera eman dute honezkero eskuratu dituztela Martinez Irala ikastetxeko eraikin txikiko giltzak. Halaxe diote oharrean: "San Martin Agirre Herri Eskolak Martinez Irala eraikineko administraziorako bulegoa –eraikin txikia– berreskuratu du". Hain justu, giltzok martxoaren 31n eskuratu zituztela azaltzen dute. "Dena den, egokitzapen obrak egin beharko dira bertan sartu ahal izateko", gehitzen dute oharrean.

San Martin ikastetxetik aurreratu dutenez, hainbat dira eraikin txikiak behar dituen egokitzapenak: sistema elektrikoa berritzea, leihoak konpontzea, lurra egokitzea... Eta gehitu dute: "Gaur, astelehena, Delegazioko obra arduraduna etorriko da eraikina ikustera. Guk egokitu beharreko gauzen zerrenda prest daukagu eta ikusi beharko da azkenean zertzuk konpontzea erabakitzen duten". Obrek, hain justu, baldintzatuko dute San Martingoak noiz hasiko diren eraikin hori erabiltzen: "Ikasturteko azken hiru hilekoa han egin nahi genuen, baina obrak bukatu artean itxaron beharko dugu", esan dute.

Obrak bukatu eta gero Lehen Hezkuntzako hiru gela eroango dituzte hara: "Asteon Eskola Kontseiluak batzarra egingo dugu eta hor erabakiko dugu zein hiru gela eraman", azaldu dute.

Horrek guztiak eragin zuzena izan du Aranzadi ikastolarengan, orain arte eurak erabili dute-eta, eraikin txiki hori.

**ARANZADI ERAIKIN HANDIRA**
Aranzaditik azaldu dutenez, Aste Santu bezperan utzi zuen eraikin txikia, "hala agindu" zitzaiolako, eta "hala agindu zitzaigun San Martin Agirre ikastetxekoen jasanezinezko espazio arazoaren irtenbidea eraikin honek emango ziela argudiatuz", esan dute. Gehitu dutenez, "aginduak adierazten zuen baita ere, ikastolak erabiltzen jarraituko duen eraikin handian beharrezko egokitzapenak egingo zirela gure proiektu pedagogikoa ahalik eta gutxien kaltetzeko". Hori horrela, egokitzapenok egin dira eraikin txikian galdutako gelak eraikin handian irabazteko. Horretarako, eraikin handiko gela batzuk erdibitu egin dituzte eta beste batzuk pasilloetan egokitu dituzte. Horren aurrean Aranzadik adierazi du espazio oso estuak geratu zaizkiela: "gela txikiak, pasillo oso estuak... Logikoa, lehen geneukan espazio berean hiru gela eta biltegia sartu beharra izanda...".

Aranzaditik zehaztu dutenez, eraikin handiko egokitzapen lan horiek bigarren hiruhilekoan egin dituzte. Hala, "eskertu" egiten diote Hezkuntza Delegazioari lanek "eguneroko joan-etorrian ahalik eta traba gutxien sor zezaten egindako guztiagatik". Dena den, lanok eskola egunetan enbarazu ere egin diela aurreratu dute, "guztia Aste Santuan eraikin txikia konpontzeko, eta ondoren, San Martin Agirrekoak etorriko zirelako".

**HIRIGINTZA** > LANAK

# Ibilgailuendako itxiko dute gaur Artekalea, bi astez

Zaborraren kamioia ere ezingo da sartu; hala, zaborra plazara eta Arresera eroan beharko da

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Gaur, astelehena, itxi egingo dute Artekalea ibilgailuendako Udaltzaingotik iritsitako oharrak azaltzen duenez.

Bi astez egongo da itxita kale horretako etxebizitzetako baten erreteila konpontzeko lanak direla eta. Izan ere, aldamio eta bestelakoak errepidean jarri beharko dituzte.

Itxiera dela eta, zaborraren kamioiak ezin izango du Artekaleko eta Arruriagako zaborra batu. Hortaz, kale horietako edukiontziak San Martin plazan eta Arrese kantoian jarriko dituzte.

Bestalde, Goenkale eta Arruriaga kaleetako garajeetako sarrera Burdiñate aldetik egin beharko da.



ARTEKALEA Autoeskola inguruko etxe bateko erreteila konponduko dute. J.A.

> DEIALDIA

### Jai batzordeak batzarrerako dei egingo du; bihar, martitzena, izango da, kultura etxean

Jai batzordeak batzarra deitu du bihar, martitzena, 20:00etan, kultura etxean. Batzarrean aztertuko dituzte, besteak beste, Mendekoste jaietako hainbat kontu. Interesa duten guztiak hurbil daitezke batzarrera.

Bestalde, Mendekoste-zapatuan –aurten maiatzaren 10ean– San Martin plazan egiten den bakailao lehiaketaren gaineko batzarra ere egongo da egun berean, hau da, bihar, martitzena. 19:00etan izango da, kultura etxean hori ere.

> HITZALDIA

### 'Jarrera positiboa pertsona nagusien arretan' hitzaldia antolatu dute Bizikasi eta Nagusilanek

Eguaztenerako, hilak 9, *Jarrera positiboa pertsona nagusien arretan* delako hitzaldia antolatu dute Bizikasik eta Nagusilanek elkarlanean. Hitzaldia izango da 19:00etan, Miguel Altuna institutuko areto nagusian eta hizlaria, berriz, Aitziber Gine.

Jarrera, egunerokotasuneko arazo eta gertaeren aurrean erantzuten den ohiko modua da, beraz, gertaeren garrantzia zehaztuko du. Jarrera positiboak bizitza konprometituarekin eta bizitzari ematen zaion zentzuarekin lotuta egoteaz gain, depresiotik, antsietatetik, estresetik eta Burnoiut sindrometik babesten du. Horretaz eta beste hainbat gauzetaz mintzatuko da Aitziber Gine eguaztenko hitzaldian.

# Oinaztuak erdibitu egin zuen haritza

Domekan aurkitu zuen eroritako zuhaitza Angiozarko Altzuaren Goikoa baserriko Juan Lonbidek. Ez du sekula horrelakorik ikusi. Alanbrezko hesitura ere urtu egin du oinaztuak zenbait tokitan. "Etxean nengoen. Goizeko zortzirak izango ziren. Kolpe handi bat sumatu nuen. Oinaztua baino tiroa izan zen. Ez nuen sekula hainbestekorik sumatu", azaldu du.



LARRAITZ ZEBERIO

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean • horma-armairuak • altzariak • leihoak • ateak

altzari denda
ikerleku zeharbidea • bergara
tel.: 943 03 46 30
erakusketa eta tailerra
san juan 1A • bergara
tel.: 943 76 54 91 faxa: 943 76 08 04

**Diego Moiua** > Margolaria

# "Nire bizipenak kontatzen ditut margolan eta eskulturetan"



Argazkian, Diego Moiua erakusketa ikus daitekeen eskultura baten ondoan. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Diego Moiua oñatiarra (1970) Osintxun bizi da, baina erakusketa zabaldu berri du Oñatiko kultura etxean. Olio lanak eta eskultura bitxiak ditu erakusgai. Harekin egin dugu berba erakusketaren inguruan.**

***Arimaren Iraultza* da erakusketaren izenburua. Zer ikus daiteke bertan?**

Bi lan mota nahastu ditut: alde batetik, olio lanak eta, beste alde batetik, eskulturak. Dena dela, bietan nire bizipenak eta egoerak kontatu nahi izan ditut. Ikusleak harrituta geratuko dira, margoak, nahiko abstraktuak dira-eta. Eta, eskulturak egiteko, etxean nituen gauzak erabili ditut.

**Zenbat denbora eman duzu erakusketa osatzeko?**

Azkeneko hiru urteotan nabil erakusketa honekin. Urtez urte, margolan berriak egiten ditut, eta erakusketara gehitzen ditut. Hala, Oñatira, 33 lan ekarri ditut. Hain zuzen, horietatik bederatzi, aurten egindakoak dira.

Era berean, margolan berriak sartzen ditudan heinean, zaharragoak direnak kendu egiten ditut.

**Margolan guztiek dute izenburua alboan.**

Bai, hala da. Guztiei izena jarri diet, baina, ez dut kontatzen pintura bakoitzaren esanahia zein den.Hori ezagutu gura dutenek *www.diegomoyua.es* helbdean sartu beharko dute. Helbide horretan daude erakusketaren inguruko azalpenak.

**Erakusketa honekin beste hainbat tokitan egon zara.**

Bilbon jarri nuen erakusketa, eta baita Bartzelonan ere. Orain arte erakusketak jarri ditudan toki guztietan erantzun ona jaso dut. Gainera, Oñatira gustura etortzen naiz nire lanak erakustera, besteak beste, etxekoek, lagunek eta ezagunek ikusteko aukera dute-eta.

Bestalde, erakusketa hau jartzen dudan toki guztietan ezberdina izaten da; alde batetik, gelaren neurriaren arabera margolan kopurua aldatu egiten delako, eta, beste alde batetik, erakusketa bakoitzean margolan berriak sartzen ditudalako. Oñatin, esaterako, aurten egin ditudan bederatzi lanak daude. Hain zuzen, erakusketa gelan sartu, eta eskumatara dauden lanak dira.

**"Erakusketa berritzen nabil, hain justu ere, margolan berriak sartzen ditut etengabe"**

**"Nahiko zaila da pinturak ematen duenarekin bizitzea; baina, moldatzen naiz"**

**Noiz arte egongo da zabalik erakusketa?**

Apirilaren 16ra arte egongo da zabalik kultura etxeko erakusketa gelan: astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

***Arimaren Iraultza* izeneko erakusketaren bukatzen duzunean, zer egiteko asmoa duzu?**

Momentuz ez dut asmo berririk. Erakusketa honekin jarraitzeko gogoa daukat; hortaz, momentuz, margolan berriak egingo ditut.

**Zaila da pinturak emandakoarekin bakarrik bizitzea?**

Egia esan, nahiko zaila da, baina gogoarekin aurrera egin daiteke. Duela urte gutxi utzi nuen lantegian egiten nuen lana, eta, ordutik, margolanak egiten dihardut.



MIREIA BIKUÑA

## Eurijasen ondorioz lurra mugitu da Zañarturako bidean

Martxoaren 21ean hasita, azken egunotako eurijasen ondorioz hainbat arazo sortu dira errepideetan. Besteak beste, Zañartu aldera doan bidean. Martxoaren 26an, gauean, lurra mugitu egin zen, eta egundoko zuloa egin zen errepidean. Foru Aldundiko ordezkariak hasi dira konpontze lanak egiten. "Lehentasunezko lanak dira, toki horretatik auto eta herritar asko pasatzen da-eta", esan digu Lurdes Idoiaga alkateak. Bitartean, Zañartu alderako bide zati horretan errepide erdia itxita dago.

**EHIZA** > INFORMAZIO BILERA

## Ehizari buruzko lege berrien inguruko hitzaldia

Ehizarako erabiltzen diren postuak zozketatu egingo dituzte aurrerantzean

**M.B.** > OÑATI

Ehizan egiteko erabiltzen diren postuak arautzen dituen ehiza legedi berriari buruzko hitzaldia egingo du Pago Uso elkarteak. Hain justu ere, usoak eta oilagorrak ehizatzeko erabiltzen diren postuak zozketa bidez banatuko dira aurrerantzean.

Oñatin dauden ehiza postuak zenbakitu egingo dituzte, eta zozketa bidez erabakiko da ehiztari bakoitzak zein egunetan erabili ahalko duen.

Bilera informatiboa apirilaren 18an izango da elkartean bertan, 19:00etan.

**TXAPELKETA ZANBRANAN**

Bestalde, apirilaren 19an herri mailako ehiza txapelketa egingo dute Zanbranan. Pago Uso elkarteak izena emateko lau egun zehaztu ditu, hain zuzen, apirilaren 10, 11, 14 eta 15. Izena elkartean bertan, edo Alzu ehiza eta arrantza dendan eman daiteke. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dute, eta ez-bazkideek 40 euro. Era berean, parte-hartzaileek, derrigorrean, ehiza baimena eta federatu txartela eguneratuta, eta txaleko islatzaile izan beharko dute.

Txapelketa 09:00etan hasi eta 13:00 aldera bukatuko da. Ondoren, bazkaria egingo dute Pago Uso elkartean bertan. Hortaz, bazkarian parte hartu gura duenak 10 euro aurreratu beharko ditu izena ematerako orduan.



GARBIKETA LANAK Asteotan garbiketa lanak egin dituzte Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidean. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > AZPIEGITURAK

# Arrasaterako errepidea garbitzen ibili dira

## Bide horren egoera dela eta kexa asko jaso ditu Udalak; Diputaziora bideratu ditu horiek

**M. ALTUBE/M.BITERI** > ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Arrasate arteko errepidea garbitzen ibili ziren joan zen astean. Hirigintza sailetik jakinarazi dutenez, errepidearen alde batetik beste aldean dagoen errekara ura eramaten duen hodi bat pasatzen da eta hori garbitu dute, euria egiten dueneean, urik ez dadin pilatu esandako errepidean. Aretxabaleta eta Arrasate arteko tarte hori oso egoera txarrean dago.

Eibar-Gasteiz autobideko lanak direla eta bide horretatik kamioi asko pasatzen dira. Zulo handiak ditu eta seinaleztapen horizontalik ez du. Hori dela eta kexa asko jaso dituzte udaletxean. Udalak Aldundiko Bide Azpiegituretako Sailera bideratu ditu kexa horiek. Oraingoz ez du erantzunik jaso.

**ERANTZUNA**

Diputazioko Bide Azpiegituretako Sailetik Gipuzkoako errepideen egoera uneoro "aztertzen eta kontrolatzen" dutela eta garbiketa eta konponketa lanen gainean, plangintza dagoela ere esan dute.

**ARETXABALETA** > EUSKARA

# Hitzaldia, ikastaroak eta bisita, Loramendiren eskutik

## Apirileko ekintzen berri eman du; tartean, argazkilaritza digitalari buruzko ikastaroa dago

**M.B.** > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak hilabete honetarako ekimenak jakinarazi ditu. Eguenean hasiko da apirileko egitaraua, landareei buruzko hitzaldi batekin. Jakoba Rekondok eskainiko du hori, herriko udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Apirilaren 17rako, bestalde, makillaje ikastaroa antolatu du toki berean. Bi ordu iraungo du horrek; 18:00etan hasi eta 20:00etara arte luzatuko da. Handik astebetera, berriz, nekazaritza ekologikoa bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatua egitea aurreikusita dago. Loramendiren egoitzatik ortu batera abiatuko dira parte hartzaileak, 18:00etan. Ekitaldi horietaz gain, ikastaro zabalagoak antolatu ditu Loramendi Euskara Elkarteak datozen hilabeteetan.

**ARGAZKILARITZA DIGITALA**

Lehenengoa argazkilaritza digitalaren gainekoa izango da. Ane Idigorasek emango du apirilaren 17an, 21ean, 28an eta maiatzaren 5ean. Ikastaro hori ere udaletxe zaharrean izango da, 18:00etatik 20:00etara.

Hilaren 10ean, eguena, amaitzen da izena emateko epea. Bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte; bazkideak ez direnak, berriz, 35 euro. Bakoitzak bere kamara eraman behar duela azaldu dute Loramenditik.



ARGAZKILARITZA Ikastaroa apirilaren 17an hasiko da. GOIENKARIA

**ESKORIATZA** > AZPIEGITURAK

# AHTren aurretiazko akten altxapena izango da asteon

## Joan zen hilean azpiegitura horren kaltetuen zerrenda argitaratu zen aldizkari ofizialetan



BATZARRA Sustapen Ministerioa kaltetuekin izandako batzarra. IKER BARANDIARAN

**M.B.**> ESKORIATZA

Abiadura Handiko Trenagatik desjabetze asko dago aurreikusita Eskoriatzan. Joan zen hilabetean, Espainiako Sustapen Ministerioak kaltetuen zerrenda argitaratu zuen. Horrekin batera, aurretiazko akten altxapenerako hitzordua deitu zuen. Martitzenean hasi eta eguenera bitartean luzatuko dira.

Onbideko ordezkari Juan Karlos Belokik azaldu duenez, desjabetzeak azpiegitura horren bi tarteei dagokie. Alegia, Legutio-Eskoriatza tarteko bigarren eremua eta Eskoriatza eta Aramaio artekoa.

Deialdiarekin batera, kaltetu bakoitzari dagokion desjabetze zabalera azaltzen da, metro karratutan. Horrez gain, zortasun azalera ere ageri da kaltetuen izenen ondoan. Alegia, ura, argia eta bestelako baliabideak jartzeko behar duten eremua. Azkenik, hartu beharreko behin behineko zabalera dator; obrak irauten duten bitartean beharko dutena.

**ESKORIATZA** > OSASUNA

# Ona txartela berria eskuragarri dago

## Apirilaren 30era arte eskatu ahal izango da KZgunean Osakidetzako Osasun Txartel Indibiduala ordezkatuko duen txartel berria

**M.B.**> ESKORIATZA

Erabilera anitzeko osasun txartel berria eskuragarri dago Eskoriatzako KZgunean. Apirilaren 1etik 30era bitartean eskatu ahal izango da, 16:30etik 20:00ak arte liburutegian kokatuta dagoen KZgunean. Osasun Txartel Indibiduala duten 16 urtetik gorakoek eska dezakete.

Txartelak Ona du izena. Bost urtetan, egungo Osasun Txartel Indibiduala ordezkatuko du. Osakidetzako zerbitzuak ahalbideratzeko balio du, hala nola, medikuarekin hitzordua online adostea edo mediku aldaketa eskatzea. Horrez gain, errenta aitorpena egiteko eta gidabaimeneko puntuak kontsultatzeko aukerak eskaintzen ditu, besteak beste. Gainera, hainbat erakunde pribatuekin gestioak egin daitezke.

**EGIN BEHARREKOA**

Txartel berria eskatu nahi duenak, KZgunean NAN aurkeztu beharko du. Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatzen duten Izenpe izeneko sozietate publikoak eskutitza bidaliko du handik gutxira, txartelaren gakoekin. Jarraian, KZgunean txartela jaso beharko du, NANa eta eskutitza aurkeztuz.

**ANTZUOLA** > LEHIAKETA

# Herriko txokoak argazki bidez azaltzeko lehiaketa

Antzuolarrek herriko txokoak ezagutuz gozatzea eta Udaleko argazki artxiboa osatzeko materiala jasotzea dira lehiaketaren helburuak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Udalak antolatu du Antzuolako Txokoak I. Argazki Lehiaketa. Sariketa izendatzeko erabili duten izenburuak adierazten duen moduan argazkiek islatuko duten gaia izango da herriko txokoak. Hau da, Antzuolako edozein bazter, kale , baserri, iturri, tunel... agertu ahal izango dira argazkietan. Kultura teknikariak esan digu helburua dela argazkien bidez herritarrek Antzuola hobeto ezagutzea eta txoko horiekin gozatzea, batetik; bestalde, Udalak argazki artxiboa osatzeko materiala jasotzea.

**OINARRIAK**
Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a da eta argazkia aurkeztu beharko da 30x40 zm.ko krema koloreko kartoi mehean itsatsita. Argazkiaren neurria gehienez 25x35 zm.koa izango da. Kartoi mehearen atzean argazkiaren izenburua ipiniko dute parte hartzaileek eta gutunazal itxi batean egilearen datuak. Ondoren, jasotako argazki guztiekin erakusketa egingo dute maiatzean.

Parte hartzaileak hiru mailatan banatuko dituzte: lehenengo mailan 14 urtera artekoak egongo dira eta partaide guztiek jasoko dute saria; bigarren mailan 15 eta 25 urte artekoetan bi sari banatuko dituzte; eta 26 urtetik gorakoen artean beste bi.

Lehen aldia da herriko txokoen gaineko argazki lehiaketa antolatu dutena. Izan ere, udazkenean egiten duten argazki lehiaketako gaia librea da. Horrek herritarren artean estimua duela eta partaide asko izaten direla kontuan hartuta urria aldera berriz egingo dute deialdia.


**TXOKOAK** Kale, baserri, iturri, tunel... agertu ahal izango dira argazkietan. Irudian Laskuraingo Iturria. JOSE MARI IITURBE


**FESTAK** Aramaioko jaietako haur ikuskizuna. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > JAIAK

# Aurtengo jaiak indartu gura ditu Jai batzordeak

Festak antolatzeko 30.000 euro duela eta hainbat aldaketa izango direla jakinarazi du

**A. BARRUSO/M.BITERI** > ARAMAIO
Aramaioko Jai batzordea bigarren aldiz bildu zen joan zen astelehenean, martxoak 31. Aspaldiko partez, aurten, Aramaioko eta Eskoriatzako San Pedro festak ez dira aste bukaera eta hori dela-eta, herrikoak indartu gura dituzte.

Hala, besteak beste, aurtengo egitarauak hainbat aldaketa izango ditu. Urtero antolatzen diren hainbat ekitaldi orduz zein egunez aldatuko dituzte.

Horrez gain, buruhandiak kanpoko enpresa bati kontratatu beharrean, herriko gazteei horiek egitea eskatzea erabaki zuten joan zen astelehenekо batzarrean. Egiteaz gain, jaietan buruhandiekin kaletik eurek ibiltzea da Jai batzordearen asmoa. Buruhandiak egiteko, Txatxilipurdi elkartekoei laguntza eskatzea pentsatu dute. Bada, ideia hori oraindik zehazteke dago; izan ere, herriko gazteekin egon behar dira eta aurretik, horren gaineko erantzun bat jasotzeko.

**TORTILLA TXAPELKETA**
Jai batzordeak, bestalde, hainbat ideia ditu. Aurten patata-tortilla txapelketa egin nahi dute eta herri kirolak berreskuratu nahi dituzte. Musikari dagokionez, talde bakoitzak eskatzen duten diru kopurua aztertzen dabil orain. Jakina denez, aurrekontuaren zati handi bat musika ordaintzeko da.

Gutzi horri buruz eztabaidatzeko eta idei berriak jasotzeko, Jai batzordeak batzarra deitu du gaurko. Udaletxean izango da, 19:00etan. Herritarrei dei egin die, "jaiak antolatzen laguntzeko eta aldi berean, antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko".

**ELGETA** > SALBADOR KALEKO LANAK

# Gaur hasiko dituzte bigarren faseko lanak Salbador kalean

Hasiera batean ez dute Salbador kale guztia batera itxiko

Pixkanaka ixten joango dira lanak aurrera egiten duten heinean

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Gaur, astelehena, ekingo diete Amaral de Sousa enpresako beharginek Salbador kaleko bigarren faseko lanei. Ez dute hasiera batetik kale guztia itxiko. "Ez dugu beharrezkoa ikusten", adierazi du Elgeta 21eko Edorta Silvak. "Lanak behetik gora egingo dituzte eta Udalaren asmoa da herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortzea. Garajeak erabiltzea posiblea bada urbanizazio lanak oztopatu barik, erabilgarri egongo dira".

**HERRITARREI ESKAERA**
Lanak egitea ezinbestekoa da eta Udalak herritarrei eskatzen die begirunez jokatzeko. "Ez dugu kale guztia bat batean itxiko, baina lehenago edo beranduago beharginak atari guztietara iritsiko dira", esan du Silvak. "Lanak errazteko herritarrei eskatzen diegu adi ibiltzeko garajeak noiz hustu prest egoteko. Edozein zalantzaren aurrean niregana etorri daitezke udaletxera. Beharginek ere informazioa eman dezakete".

**LEINTZ GATZAGA** > OSOKO BILKURA

# 2008ko udal aurrekontua onartuko dute eguenean

Inbertsioak aurreikusten eta batzordeei zenbat diru banatu zehazten ibili dira azken asteotan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Eguenean, hilak 10, (18:30) ohiko osoko bilkura egingo du Gatzagako udalbatzak. Hainbat gai aztertuko dituzte, eta tartean, 2008ko udal aurrekontua onartuko dute.

Otsailean onartu gura zuen aurrekontua Udalak –proiektuak lehenbailehen abian jartzeko– , baina uste baino luzeago joan dira aurrekontua gertatzeko lanak. Izan ere, Leintz Gatzagako Hautes-elkarteak gertatu duen lehen aurrekontua izan da.

**ARLABAN GAINEKO PLANA**
Udalbatzak badu beste lan garrantzitsu bat egiteko: Arlaban gaineko plana. Poliki-poliki dabiltzala aztertzen aurreko agintaldian egindako lana argitu digu alkateak, eta ondoren plana egin zuen Toledo taldeko adituekin elkartuko dira.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Mondrak eta UDAk berdinketa lortu zuten eta Aloñak Zestoan galdu > 16

**> ELKARRIZKETA**
Juan Perea eskoriatzarra Betiseko atezaina izan genuen 1960ko hamarkadan. Beste sei talderen atea defenditu zuen. Berarekin izan gara futbolaz berbetan > 20





**> ESKALADA**
Jon Agirre oñatiarra nagusitu zen Zubikoako boulder txapelketan > 19

**ESKUBALOIA** > GURE JORGE FERNANDEZ 31-BERGARA 27

# Gasteizen galduta, jaisteko aukera asko ditu Bergarak

Lehenengo mailan eta euren ligako igoeran gertatzen denaren zain egon beharko dute mahoneroek

Zapatuko lehian ez zuten defentsan asmatu, eta arabarren hegalekoek min asko egin zieten



**BURUMAKUR** Partidu amaieran aurpegi ilunak zituzten bergararrek, bazekitelako hanka eta erdi Gipuzkoako Txapelketan zutela. JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO** > GASTEIZ
Gure Jorge Fernandez eta Bergararen arteko partidua oso parekatua izan zen azken txanpara arte. Neurketa amaitzeko hamar minutu falta zirela bi goleko aldea besterik ez zuten gasteiztarrek, eta ordura arte ere ez zen alde handirik egon; berdinketa ugari izan zituen norgehiagokak.

Azken minutuetan, baina, ez ziren fin ibili Bergarakoak. Etxekoek zuten aldea murriztu nahian, buruz-buruko defentsa egin zioten euren jokalari bati; honela, baloi dezente berreskuratzea lortu zuten, kontraerasoak egin ere bai, baina jaurtiketa errazetan asmatu ezin gero.

### HUTSUNE GARRANTZITSUA

"Baina partidua defentsan galdu dugu", adierazi zuen amaieran Edu Orgaz Bergarako entrenatzaileak. Mahoneroek asko igarri zuten Josu pibotearen falta. Sukar altuarekin, Josuk ez zuen jokatzerik izan "eta hori asko igarri da, bai erasoan eta bai defentsan", zioen Orgazek."Erasoan pibote handia da eta bera barik defentsak sakontasun handiagoa zeukan. Horregatik, zailtasunak izan ditugu erasoan gure joko azkarra egiteko. Defentsan, zentral moduan ondo ibiltzen da Josu pibotea defendatzeko lanetan, eta baita hegalekoei laguntzen ere. Hor ere nabaritu dugu bere hutsunea".

Lehenengo zatian min asko egin zien bergararrei gasteiztarren ezker hegalekoak, eta bigarrenean beste hainbeste gertatu zen eskumakoarekin. "Horiek defendatzen jardun duten jokalariak ez dira lan horietan ohitutakoak, eta min asko egin digute".

Partidua 31 eta 27 amaitu zen, etxekoen alde. Gogotik ospatu zuten garaipena Gasteizko kiroldegiko harmailak goraino bete zituzten zaleek. Asko bultzatu zuten euren taldea.

Amaieran burumakur zeuden Bergarako jokalariak eta teknikariak: "Gorputz txarrarekin geratu gara. Irabaztea espero genuen. Denboraldia aldapa gora jarrita, gaur genuen dena jokoan".

Bergarak ezinbestekoak zituen bi puntuak mailari matematikoki eusteko. Orain, liga amaitzeko partidu bakarra falta dela, ezin du Bergarak azken hirugarren postutik gora egin, eta leku hori ere ez du seguru. Printzipioz hiru talde jaisten dira Gipuzkoako Txapelketara, baina komeni zaio Bergarari azken jardunaldian Portugaleteren kontra ez galtzea, badaezpada.

### ARRASATEK EZIN LAGUNDU

Ford Mugarri Arrasatek ere bazuen jardunaldi honetan Bergarari laguntzeko aukera. Arrasatearrek Urdaneta azken sailkatuaren kontra jokatu zuten atzo Iturripen; etxekoek irabazi ezkero Bergarak seguru zuen azken hirugarren postua, baina ez zen posible izan: 24na berdindu zuten.

Emaitza horretan zerikusi handia izan zuten epaileek; soilik datu bat: Ford Mugarrik bi minutuko 14 kanporaketa jasan zituen partiduan; Urdanetak hiru.

Honela, Bergarak behintzat berdindu egin behar du datorren asteburuan etxean Portugaleteren kontra, eta gero zain egon. Teorian azken hirugarrena jaitsi egiten den arren, ikusi egin behar da Euskadiko Txapelketatik Espainiako Lehenengo Mailara talderen bat igotzen den, edo Lehenengo Mailatik Euskadiko Txapelketara Hondarribia eta Trapagaran edo azkenean Trapagaran bakarrik jaisten den. Baldintza horietakoren bat betetzen bada Bergarak Euskadiko Txapelketan jarraituko du datorren denboraldian, bestela Gipuzkoakoan jokatu beharko du.

EDU ORGAZEN ADIERAZPENAK

**"Partidua defentsan galdu dugu. Lehenengo zatian min asko egin digute ezker hegaletik, eta bigarrenean bestetik"**

**"Asko igarri dugu Josu pibotearen falta, bai erasoan eta bai defentsan. Sukarra zuen eta ez jokatzea erabaki dugu."**

**"Gorputz txarrarekin geratu gara. Irabaztea espero genuen. Denboraldia aldapa gora jarri ostean gaur dena genuen jokoan."**

**PREFERENTEA** > MONDRA-EUSKALDUNA

# Azken minutuan lortu zuen Mondrak berdinketa

Maikelek egin zuen berdinketaren gola; atzean sartuta, lan ugari eman zion Euskaldunak etxeko taldeari



**MONDRA NAGUSI** Muruamendiaraz baloia kontrolatzen, ondoan Ruben kapitaina duela, zapatuan Mojategin. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRA
**1-1**
EUSKALDUNA

**Mondra** > Ruiz de Azua, Amutxastegi, Etxeberria, Laspiur, Arazkonaga (Muxi, 45. min), Ruben, Arkaitz (Keixi, 45. m.), Heriz, Muruamendiaraz, Garin (Maikel, 75. m.) eta Alzola (Luna, 59. min).

**Euskalduna** > Ezkurdia, Telletxea (Marquez, 76. m.), Berrueta (Mauleon, 53 m.), De Lucas, Altuna, Pontentas, Baltasar (Manero, 86. m.), Fernandez (Artola, 59. m.), Ugalde, Luque eta Irazu.

**Bestelakoak** > Perez epaileak lan txarra egin zuen. Sei txartel hori atera zituen. Etxekoen partetik, Laspiurri, Herizi eta Muruari. 350 ikusle inguru Mojategin. Giro atsegina.

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Azken minutuan, hiru puntuak ihes egiteko zorian zirenean, berdindu zuen Mondrak partidua. Gutxienik puntu bat merezi zuten Igor Gordobilen jokalariek eta azkenean eskuratu zuten saria, eskasa agian, Euskaldunak ezer gutxi egin zuela ikusita. Andoaindarrak aurreratu ziren markagailuan, 20. minutuan, Iker Arazkonaga Mondrako atzelariak bere atean sartutako gol bati esker. Hortik aurrera, atzean sartu eta emaitzari eustera, defenditzera mugatu ziren bisitariak.

Hala ere, Mondrak ez zuen arrisku handirik sortu lehenbiziko zatian. Nabarmentzekoa 42. minutuan Arkaitzek areaz kanpotik egindako jaurtiketa; argi ibili zen Ezkurdia atezaina.

Hain zuzen ere, Ezkurdia atezaina izan zen bisitarien jokalaririk onena. Bigarren zatian lan ugari izan zuen eta gelditu bikainak egin zituen. Aurretik, 47. minutuan aukera ederra izan zuten bisitariek Luqueren hanketan. Ruiz de Azua atezaina gaindituta, Rubenek gol marratik atera zuen baloia.

**MONDRA NAGUSI JARRAIPENEAN**

Etxekoek gogor egin zuten erasora eta hurrengo jokaldian, 48. minutuan, etorri zen partiduko jokaldi eztabaidagarriena: penalti garbia egin zioten Laspiurri, baina epaileak ez zuen ezer adierazi eta erabaki horrek jokalarien eta zaleen animuak piztu zituen. Hori gutxi balitz, 60. minutuan, beste penalti bat eskatu zuten Mondrakoek, Murua area barruan jausi eta gero. Ez zen aurreko bezain garbia izan eta Mondrako aurrelariak txartela ikusi zuen bere burua botatzearren.

Zelai erdian nagusitu arren, ez zen berdinketaren gola iristen, zaleen atsekaberako. Bazirudien andoaindarrek irabaziko zutela partidua. 87. minutuan partidua erabakita uzteko aukera ederra izan zuen De Lucasek, baina bakar bakarrik zegoela huts egin zuen Ruiz de Azuaren aurrean.

Jarraian, Rubenen burukada bati erantzun bikaina eman zion Ezkurdiak; area txikian urrunketa jaso eta gola egin zuen Maikelek, zaleen zoramenerako.

**PREFERENTEA** > TOURING-UDA

# UDAk puntu bakar bat ekarri zuen Touringen etxetik

Gomezen gol batekin markagailuan aurreratu arren, Igor Arenazaren mutilak ez ziren gauza izan bigarren zatian abantailari eusteko




**IBARRAN** Lehen itzuliko UDA-Touring partiduko irudi bat. ARTXIBOA

TOURING
**1-1**
UDA

**E.M.** > BERGARA

Aukera ederra galdu zuen zapatuan UDAk Touring taldearen etxean, Fanderia futbol zelaian, irabazteko. Errenteriarrak sailkapeneko azken tokian daude baina aretxabaletarrak puntu bakar batekin konformatu behar izan ziren. Aretxabaleta aurreratu zen markagailuan, 25. minutuan Alain Gomezek egindako gol batekin. Defentsari aurrea hartu zion Gomezek eta baloia sareetara bidali zuen. Atsedenaren aurretik bigarren gola egiteko pare bat aukera izan zuten Arenazaren mutilek, baina Oinatz Agirrek eta Imanol Rodriguezek ez zuten asmatu.

**MOTEL BIGARREN ZATIAN**

Bigarren zatian, motel hasi ziren UDAkoak eta zuzeneko falta jaurtiketa baten bidez berdiketa egin zuen Touringek. UDA ez zen berdinketarekin konformatzen, eta partiduaren amaieran, Oinatz Agirrek bi aukera garbi galdu zituen. Zazpigarren postuari eusten dio UDAk eta domekan Aurrera Ondarroaren bisita izango du Ibarran.

**PREFERENTEA**

# Aloñak sufritu egin beharko du azkeneraino

**E.M.** > BERGARA

Aste Santuko osteko atsedenaldiak ez dio onik egin Aloñari eta zapatuan berriro galdu zuen. Sailkapeneko zuloan dagoen Zestoaren etxean ere ez ziren gauza izan oñatiarrak punturik ateratzeko. Zubiaren mutilek 2-1 galdu zuten zapatuan. Ahazteko moduko boladarekin jarraitzen dute oñatiarrek eta liga amaierara arte sufritu beharko dute mailari eutsi ahal izateko.

Zestoa aurreratu zen markagailuan eta atsedenaren aurretik Roberto Ugartek egin zuen banakoa. Hala ere, bigarren zatian garaipenaren gola lortu zuten etxekoek. Maiztegik eta Sanchez oñatiarrak kanporatu zituen

# aukera honek bizitza osoa iraungo balu, ez litzateke aukera izango.

Oraintxe duzu etorkizuna bermatzeko unerik onena. **Kutxako zure Aurreikuspen Planean** aurrez egin zure ekarpenak, edo aukera onak baliatzen dituztenetakoa baldin bazara, ez ihes egiten utzi aurrezki bermatuaren kontzeptu berria kontratatzeko aukerari: **kutxa**ren **Udaberriko Aurreikuspen Plana.** Eta eskura itzazu etorkizun paregabe baterako baldintza ezin hobeak.

Kutxaren Udaberriko Aurreikuspen Plana

Kutxa Bi BGAEri atxikita dago

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# MUk beste garaipen bat erdietsi zuen Iruñean

Mondragon Unibertsitateak sendo jarraitzen du igoera bidean; zapatuan Viajes Marfien kantxan irabazi zuen


**SENDO** Arrasatearrek lider jarraitzen dute. Irudian, Kintana saskira jaurtitzen, Iturripeko partidu baten, ARTXIBOA

VIAJES MARFIL

**67-80**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Viajes Marfil** > Munarriz (5), Jaca (5), Bernarte (2), Delasen (7), Zalakain (5), Les (14), Lizarraga (17), Domeño, Ziganda, Lafuente (8) eta Martirikorena (4).

**Mondragon Unibertsitatea** > Alartzia (11), Kintana (15), Gamarra (5), Biain (24), Atxa (4), Zeziaga, Hernandez (4), Mallabiabarrena (16) eta Peña (3).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 19-14. Bigarren laurdena: 39-35. Hirugarren laurdena: 56-55. Laugarren laurdena: 67-80.

**E.M.** > BERGARA

Mondragon Unibertsitateak sendo jarraitzen du igoera bidean eta zapatuan beste garaipen bat erdietsi zuen Iruñean, Viajes Marfil taldearen kantxan. Markagailuan 13 nagusitu baziren, arrasatearrek azken laurdenera arte nahiko sufritu zuten San Ferjmin ikastetxean jokatutako partiduan. Uste baino lan handiagoa eman zieten nafarrek Iñaki Merinoren mutilei.

Lehen laurdenean, 7. minutuan, markagailuan aurreratzea lortu zuten arrasatearrek (9-12), baina hortik aurrera behera egin zuen MUko boskoteak. Nafarrak nagusi ziren kantxan eta horrela, atsedenaldian lau puntuko aldearekin joan ziren etxekoak aldageletara (39-35).

Jarraipenean, MUko erreakzioa etorri zen eta hirugarren laurdenean indarrak parekatzen joan ziren. Poliki-poliki Merinoren jokalariak nagusitzen joan ziren eta lehen aldiz nagusi izan ziren arrasatearrak (17-20 aldeko emaitza hirugarren laurdenean)

Aurreko partiduetan bezala, Merino, MUko entrenatzaileak, taktika aldaketa agindu zuen, zonako 3-1ekora pasatu, eta erabaki horrek ustekabean harrapatu zituen nafarrak. Gutxika aldea handituz joan zen markagailuan eta Mallabiabarrenak zerikusi handia izan zuen horretan; lehen zatian motel ibili bazen, hirugarren laurdenean kantxako jokalaririk onena izan genuen, 16 puntu lortuz.

Partiduko azken zatira abantaila erosoarekin iritsi ziren arrasatearrak eta arazorik gabe bi puntuak ekarri zituzten. Aste bukaeran igoera fasean euren arerio zuzena den Leclerq talde gasteiztarraren aurka neurtuko dituzte indarrak.

**PILOTA** > UDABERRI TXAPELKETA

# Aitor Agirre eta Egoitz Uribarren, Udaberriko finalerako sailkatuta

Usurbilgo bikoteari irabazi zioten zapatuan Uarkapen

**E.M.** > BERGARA

Aitor Agirre eta Egoitz Uribarren arrasatearrek Udaberriko Txapelketako finalerako txartela lortu zuten zapatuan. Uarkape pilotalekuan gauean jokatutako partiduan Agirrek eta Uribarrenek 22 eta 17ko emaitzaren irabazi zioten Usurbilgo bikoteari. Beraz, arrasatearrak Udaberriko Txapelketako senior mailako finalean izango ditugu. Datorren aste bukaeran jokatuko da finala eta arrasatearrek Azkoitia-Urretxu neurketako bikote irabazlearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Bestalde, zapatu arratsaldean alebin mailako pilotariek jardun zuten Uarkape pilotalekuan. Arrasateko, Antzuolako eta Oñatiko pilotari gaztetxoak lehiatu ziren. Hirukoteka jokatu zuten pilotan eta banaka zein banakako partidu politak ikusi zituzten Uarkapera hurbildutakoek.


**HARROBIA** Alebin mailako pilotariak lehiatu ziren zapatuan Uarkapen. J. A.

**BERGARA HIRIA, BIHAR**

Bihar, martitzena, Bergara Hiriko bigarren jardunaldia jokatuko da Udal Pilotalekuan, 19:30ean. 22 urtez azpikoetan Jaunarena-Bergera eta Epelde-Diez bikoteak izango dira aurrez aurre eta nagusietan Mugurutzak eta Bengoetxeak Olloren eta Linzoainen aurka jokatuko dute.


JOSETXO ARANTZABAL

## Xakea: Arrasatek Zarautzen aurka galdu

San Andres Xake taldeak Zarautzen aurka galdu egin zuen zapatuan, Altamiran jokatutako neurketan. Talde titularra atera zuten arrasatearrek; Luis Angel Ortegak, Josu Tornayk, Txema Hernandok eta Asier Etxagibelek jokatu zuten etxekoen partetik. Hernandok bere partida galdu zuen eta ondoren Ortegak banakoa lortu zuen. Baina Tornayk galdu ondoren, gauzak okertu ziren arrasatearrentzat eta Etxagibel berdinketa lortzen saiatu zen, gehiegi arriskatzen agian. Horrela, Etxagibelek ere bere partida galdu zuen eta 1-3 nagusitu ziren zarauztarrak. Asteburuan Astigarragan jokatuko dute Arrasatekoek azken jardunaldia baina zaila daukate Zarautzi lehen postua kentzea.

**BOULDER LIGA** > AZKENAURREKO JARDUNALDIA

# Jon Agirre, etxeko saioan nagusi

Ligako liderra, Juanjo Esnaola lazkaotarra bera ere menderatu zuen Oñatiarrak

18 urtetik beherako kategorian Arrasateko eskalatzaileak izan ziren jaun eta jabe

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatu zen zapatuan 2008ko Boulder Ligako azkenaurreko jardunaldia. Sei kategoriatan banatuta aritu ziren eskalatzaileak, eta hauek izan ziren lehenengo sailkatuak mailaz maila: 18 urtez azpikoetan, nesketan, Mirian Mulas arrasatearrak eta Maialen Martinez gasteiztarrak berdinduta amaitu zuten, eta Naia Vizcaino arrasatearra izan zen hirugarren; mutiletan Arrasatekoak izan ziren aurreneko hirurak: Josu Viejo, Mikel Velasco eta Iñaki Viejo, hurrenkera horretan; maila herrikoian, neska eta mutiletan, Arabako, Ondarroako eta Miranda de Ebroko eskalatzaileentzat izan ziren aurreneko postuak; azkenik, elite mailan, Maite Segurola azpeitiarra bakarrik aurkeztu zen emakumezkoetan; gizonezkoetan, berriz, Jon Agirre oñatiarrak irabazi zuen, Xabin Ulazia mutrikuarra izan zen bigarren eta Juanjo Esnaola lazkaotarra hirugarren.

Sergio Maiztegi oñatiarrak eta Joxean Mulas arrasatearrak izan zuten Zubikoako blokeak diseinatzeko ardura; lan txukuna egin zuten ibilbideak prestatzen, gutxi izan baitziren bukaeraraino iritsitakoak, baina dezente hortxe-hortxe geratutakoak.

Giroari dagokionez, polita izan zen zapatuan Zubikoan sortutakoa: goizean, sailkapen probetan, eskalatzaileak elkarren arteko eta lagunen animu artean ibili ziren; arratsaldean, ostera, hainbat herritar bertaratu zen finalak ikustera.

Gasteizko boulder zentroek antolatzen dute Liga. Sei saio dira denera, erdia han bertan, baina kanpora ere zabaldu gura izan dute ekimena; kirol hau sustatzeko eta neguan eskalatzen jarraitzeko aukera ematea dira txapelketaren helburuak. Ligako azken jardunaldia datorren zapatuan jokatuko da Gasteizen. Sailkapen nagusian, mutiletan, arrasatearrak dira nagusi 18 urtetik beherakoen kategorian.



**NESKAK** Arrasateko neskak bikain ibili ziren 18 urtetik beherako kategorian. JOSETXO ARANTZABAL



**IBILBIDEAK** Sergio Maiztegik eta Joxean Mulasek prestatu zituzten blokeak, ondo prestatu ere. J.A.

**EUSKAL HERRIKO ITZULIA** > LEHENENGO ETAPA

# Legazpiko irteeran egongo da azkenik Iban Velasko



**IBAN VELASCO** Taldeari laguntzea izango du helburu, Arrasatearrak. GOIENKARIA

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Azken ordura arteko zalantza izan da Iban Velasco arrasatearrak Euskal Herriko Itzuliaren aurtengo edizioan parte hartuko zuen edo ez. Igor Anton min hartuta zegoela-eta, bizkaitarraren egoeraren araberakoak ziren, printzipioz, Velascok Legazpiko irteeran egoteko zituen aukerak. Azkenean, ordea, beste taldekide bat, Ruben Perez ordezkatuko du Arrasatekoak. Perez gaixo jarri da eta Euskaltel-Euskadiko arduradunek Velasco deitu dute haren ordez.

Euskal Herriko Itzulian egotea Arrasatekoaren asmoen artean ez zegoen arren, taldeak kontuan izan du agian azken orduan joan beharra tokatzea eta, honela, Iban Velascok ere hartu zuen parte aurreko egubakoitzean Itzuliko bosgarren etapa aztertzeko egindako entrenamendu saioan. "Nire egitekoa taldeari laguntzea izango da. Sasoi onean nagoela uste dut", adierazi digu Velascok. Zapatuan Miguel Indurain Sari Nagusian izan zen, Lizarran, eta 45 txirrindulari inguruk osatzen zuten aurreko taldean amaitu zuen lasterketa.

**ITZULIA DEBAGOIENEAN**

Gaur arratsaldeko 13:35ean hasiko da Legazpin Euskal Herriko Itzulia. Goizetik somatuko da, ordea, gisa honetako kirol hitzordu batek sorrarazten duen mugimendua; taldeen aurkezpena 12:30ean hasiko da. 19 taldetako 152 txirrindulari izango dira.

Lehenengo kilometroak Urolako≠eta Goierriko errepideetan egingo dituzte txirrindulariek. Lierniako gaina (3. mailakoa) gainditu beharko dute aurrena, eta Aztiriakoa (2. mailakoa) gero; 14:20 aldera pasako dira handik. 40,5 kilometroan, Udanan behera, Oñatira iritsiko dira (14:40), eta handik Bergarara (15:00).

Deskargako gainetik 15:10 inguruan pasako dira txirrindulariak lehenengo aldiz. Berriz ere Aztiria igota (15:26) Urola eta Goierriko errepideetan egingo dituzte hurrengo kilometroak. Atzera ere Udanan behera (ez da puntuagarria izango mendiko sarirako), 111,7 kilometroan Oñatin izango dute tarteko helmuga txirrindulariek (16:27).

Bergaratik pasatuta (16:44) Deskargako gainera (16:56) abiatuko da berriro tropela. Mendate pankarta helmugarako sei kilometro pasatxora egongo da; beraz, litekeena da euren burua indartsu ikusten duten txirrindulariek malda horiek baliatu nahi izatea Euskal Herriko Itzuliko lehen etaparen eta, bide batez, lidertzaren bila. 137 kilometroko ibilbidea eginda, 17:05 ingururako espero da txirrindulariak Legazpiko helmugara iristea.

Futbola pasioa izan du betidanik Juan Perea eskoriatzarrak. Mutikotan futbolean hasi zen eta golak sartzea gustatzen zitzaion arren, berak esan digun bezala, "kasualitatez" iritsi zen atezain postura, baina oroitzapen onak ditu, batez ere, Alacant taldeko gazte mailan zegoela Real Madrilaren aurka jokatu zuen kopako finala. Ceutan, 30 urterekin, esan zion agur futbolari.

**Juan Perea** > Betiseko jokalari ohia

# "Arconada eta Iribar izan dira niretako atezain onenak; orain, aldiz, Casillas"

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

**Juan Perea Esteve-ri (Alacant, 1940) futbola txikitatik gustatu izan zaio. Zazpi futbol talde ezberdinetan ibilitakoa da profesional mailan egondako 12 urtetan zehar; besteak beste, Betis eta Logroñes taldeen atea defendatu zuen. Garai haietan bizitakoaz eta gaur egungo futbolaz hitz egin dugu berarekin.**

**Noiz hasi zinen futbolean jokatzen?**

Mutikotan, 14-15 urte nituela auzoko lagunekin hasi nintzen. Beste kirol batzuk ere egiten nituen, esaterako, saskibaloia, baina azkenean futbola gustukoago nuen.

**Alacanten jaio baina leku askotan ibili zara futbolean. Garai haietan ez zen batere erraza izango...**

Ni Alacanten hasi nintzen eta handik Elx taldera joan nintzen. Bertan 24 urte arte egon nintzen, Betis taldean ere eman nuen urtebete; ondoren Logroñes taldean ibili nintzen, eta bigarren mailara igotzea lortu genuen, 1967. urtean. Handik, Linaresera joan nintzen, baina nire fitxa handiegia zenez, ezin zidaten ordaindu, orduan Algeciras taldera joatea erabaki nuen. Han beste urtebete egin nuen, baina kobratzeko arazoak izan genituen han ere, ez ziguten soldata ordaintzen. Egoera ikusita, Ceuta taldean amaitu nuen.

Egia esateko ez zen batere erosoa alde batetik bestera ibiltzea, ez niretzat, ezta emaztearentzat ere. Urte guzti horietan ekonomikoki bizitzeko beste eman zidan futbolak hasieran, baina gauza guztiak bezala futbol munduak ere amaiera du. Ni horretaz 30 urterekin konturatu nintzen, eta ikusi nuen beste zerbait topatzen hasi behar nuela.

**Handia izango zen gero 18 urterekin, Alacanten gazte mailan Real Madrilaren aurka Santiago Bernabeu zelaian jokatu zenuen kopako finala....**

Benetan ederra. Partidua 1 eta 0 galdu genuen. Izugarrizko emozioarekin bizi izan nuen, futbol zelaia jendez gainezka, ondoren Real Madril eta Athleticen arteko kopako finala jokatzen zelako. Ezin daiteke hitzekin adierazi. Madrileko gazteak, gu geu eta lehen mailako finala jokatu zuten bi taldeak, hotel berdinean geunden ostatu hartuta, Carlton hotelean hain zuzen. Eta noski, mutiko bat izanda hainbeste miresten nituen jokalariak aurrez aurre izatea izugarria izan zen, Athleticeko Iribar, Garai zentrala, Gainza, eta beste asko.

**Txikitan aurrelari moduan jokatzen zenuen. Golak sartzea baino nahiago al zenuen geldiketak egitea?**

Penalti jaurtiketetan bazen ere sartu nezakeen golen bat edo beste. Gaztetan beti gustatzen zitzaidan aurrelari bezala jokatzea golak egiteko. Baina bi partidutan, gure taldeko atezaina falta izan zen eta ni jarri nintzen. Atepean gauzak txukun egiten nituela ikusi zuten eta horrelaxe golak sartu beharrean, geldiketak egiten hasi nintzen.

**Betis taldearekin ere jokatu zenuen lehen mailan 1965. urtean, ezta?**

Esperientzia oso ona izan zen. Lehen mailan zebilen taldea. Baina taldea ez zebilen ondo jokatzen, eta egoera horrek beti taldean gora beherak sortzen ditu. Ramon de Carranza torneoa ere jokatu nuen urte horretan Benficaren aurka.

**Ordutik hona asko aldatu al da futbol mundua?**

Niretzat asko aldatu da futbola. Lehen futbola beste era batera ikusten zen, disfrutatzeko jokatzen genuen, erasora begira, golak egiteko... Gaur egun, ordea, taktika larregi, diru gehiegi dabil bueltaka futbolean. Hala eta guztiz ere esan behar da gaur eguneko jokalarien prestaketa gurea baino hobeagoa dela, baldintzak ere hobeagoak dira...




Juan Pereak zazpi futbol taldeetan jardun zuen atezain. JASONE ZABALA

**Ceutan erretiratu zinen orduan.**

Bai. Gainera emaztea ere Ceutakoa zen eta bertan zeukan familia dena. Horregatik, bertan gelditzea erabaki nuen, futbol munduan gorabehera handiak zeudelako garai haietan. Gainera, taldeek ez zuten ordaintzen, beti zeuden zorretan eta beste bide bat hartzea erabaki nuen. Nire emaztearen iloba baten bitartez, Eskoriatzan kooperatiban lana bazegoela esan zidaten. Dagoeneko badira 38 urte Eskoriatzara etorri nintzela.

**Zure garaian gertatzen al ziren Armando, Athleticeko atezainari gertatu zaionaren antzerakorik?**

Haserreak bazeuden, halakoak beti izan dira zelaian, baina, gaur egunekoa inola ere ez. Lotsagarria iruditzen zait.

**Atezain batek odol berokoa izan behar al du?**

Bai, batez ere tentsioa izan behar du partidu guztian zehar, pertsonalitatea. Horregatik, asko gustatzen zitzaizkidan Arconada eta Iribar atezainak. Gaur egunekoetatik, berriz, Iker Casillas.

**Urte guzti hauetatik zein da gelditu zaizun oroitzapenik onena?**

Onenen artean, Real Madrilaren aurka gazte mailako finala jokatu nuenekoa, ez dut inoiz ahaztuko. Galdu arren, zoragarria izan zen final hura guretako.

## Betisekin 1965-1966 denboraldian egin zuen debuta eta Eusebio mitikoaren gola

Hogei urte zituela Juan Perea Elx taldera joan zen, eta bertan bost urte eman zituen, 1960tik 1965era. Talde horretan, Pazos izeneko atezain galiziar bat zen titularra, "oso ona zen, Iker Casillasen estilokoa. Bera ondo bazegoen inork ez zuen ate azpitik kentzen" esan digu Pereak. Horrela, Perea lehen lau urteetan ordezkoen aulkian egon zen, partidurik jokatu ezinik. Berak jokatzea nahi zuen, eta Elx aldean aukerarik ez zeukala ikusita, Sevillako Betis taldeak fitxatu zuen. Taldea, orduan, lehen mailan zegoen, baina ez zebilen oso ondo eta Pereak taldea uztea erabaki zuen. Aurretik, Carranza torneoan, Benficaren aurka jokatu zuten Cadizen. Portugaldarrek 2-1 irabazi zioten Betisi eta bigarren gola Eusebio mitikoak penaltiz sartu zion Pereari.

Ondoko argazkia 1965. urtekoa da, Pereak Betisekin debuta egin zuenekoa. Mallorcaren aurka jokatu zuten. Perearekin batera( goian ezkerretik hasita lehena), bazeuden taldean beste bi gizon ezagun: Perearen ondoan Eusebio Rios, Athletic-en ibilitako Roberto Riosen aita, eta beheko aldean makurtuta (ezkerretik hasita hirugarrena) Fernando Ansola elgoibartarra, Realeko eta Valentziako golegilea izandakoa.




Perea, 1965. urteko argazkian, Betisekin debutatu zuenekoa.

**BERGARA**

# Ezohiko kirolak praktikatzen zapatu goizean Labegaraietan

**KIROL BEREZIAK** Eskaladan eta irristaketan jardun dute Bergara, Elgeta eta Antzuolako gaztetxoek

**ELKAR EZAGUTZEN** Eskola ezberdinetako umeak elkarrekin nahastu ziren hockeyan jokatzeko

**GIRO ONA** Gurasoek harmailetan eta gaztetxoak pistan primeran pasatu zuten zapatu goiza

**NEREA MENOR** > BERGARA

Zapatu honetan ezohiko goiza izan dute Bergara, Antzuola eta Elgetako neska-mutikoek. Izan ere ez dira betiko kiroletan aritu. Eskalada eta irristaketa praktikatzen ibili dira Bergarako Labegaraieta kiroldegian.

Hasiera batean piraguismoa egin behar zuten, baina egun hauetan egondako zaparradek gehiegi bete dute ibaia eta arriskutsua izan zitekeela pentsatu dute arduradunek. Hala ere, gaztetxoek primeran igaro zuten goiza. Hockeyan jardun zuten lehenengo. Begiraleak azalpenak ematen zituen bitartean umeak adi-adi egon ziren eta partiduari hasiera ematean ziztu bizian joan ziren guztiak pilotaren bila. Hiru ordu laurden pasa eta gero patinak kendu eta arnesa jartzeko ordua heldu zitzaien benjamin mailako neska-mutikoei. Gurasoen begiradapean rokodromora igo ziren. Bi lerro egin eta poliki-poliki ume guztiek ikutu zuten paretako puntu garaiena.

**ESKOLAK NAHASTUTA**

Normalean saskibaloian, futbolean eta eskubaloian jokatzen dute umeek. Taldeak eskolen arabera banatzen dituzte. Begiraleen arabera, zapatuko ekintzak umeen arteko arremana sustatzeko balio izan zuen. Estitxu Lobato begiraleak esan digunez "*pike* txikiak egon ohi dira umeen artean. Nik denak nahastu ditut gaurko taldeetan, elkar ezagutzeko eta batera jolasteko aukera izango dute horrela".



N.M.

**Elgeta.** Aitorrek, Ainarak, Garik, Jonek eta Unaik osatzen dute taldea. Elgetako Herri Eskolako taldea.



N.M.

**San Martin.** Goian Jabi, Andoni, Iñigo eta Mikel. Makurtuta Olatz eta Alba; Bergarako San Martin ikastetxekoak.



N.M.

**Mariaren Lagundia.** Antxonek, Xabik eta Josu Martinek elkarrekin jardun zuten zapatuko ekintzean.



N.M.

**Antzuola A.** Facundok, Aiertek, Jonek, Xabierrek, Aritzek, Amalurrek eta Ainizek talde berean jardun zuten.

## ESKALADA ALA IRRISTAKETA?



**Jone**
Elgeta

Irristaketan jardun ostean eta eskalatu bitartean Jone aurkitu genuen. "Eskalada egitea patinetan ibiltzea baino gehiago gustatzen zait. Gaur hockeyan jolasten ibili gara patinekin. Hockeyan erabiltzen den makilarekin mina hartu dezakegu oso erraz eta horregatik nahiago dut eskalada. Gainera, eskaladan altuera asko dagoenez jendea ausartago bihur daiteke. Leku garaiei beldurra kentzeko balio du".



**Unai**
San Martin

Hockeyan jokatu eta eskalatu ondoren San Martin ikastolako Unarekin egon ginen berriketan lagunekin jolasten zuen bitartean "Eskalatzea baino nahiago dut irristaketa. Gehien gustatzen zaidana hockeyan jardutea da, baina patinetan ibiltzea ere gogoko dut. Jai egunetan eta eskolara joan behar ez naizenean askotan ibiltzen naiz irristaketan dut. Normalean amarekin etortzen naiz hona, Labegaraietara".



**Izaro**
San Martin

Izaro patinekin ibili zen baina oraindik ez zuen eskalatzeko aukera eduki. Lagunekin jolasean zabilen bitartean berbetan egon ginen."Eskalatzea da bi kiroletatik gehien gustatzen zaidana, baina normalean ez dut praktikatzen. Ez gara patinak jartzen ibili behar. Eskalatzean ez daukagu jausteko arriskurik sokekin lotzen gaituztelako. Oporrak dauzkadanean aitatxorekin joaten naiz eskalatzera".


Goienkaria **33.825** irakurle
GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*
El Diario Vasco **17.765** irakurle
Gara **5.060** irakurle
Berria **2.310** irakurle
El Pais **1.430** irakurle
Marca **1.265** irakurle
Mundo Deportivo **715** irakurle
El Correo **605** irakurle
Deia **275** irakurle
• GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.
• Bigarren hedabidea baino bi bider gehiago irakurtzen da.
• Debagoiendarren %60,5ek astero irakurtzen du GOIENKARIA.
• **Eskerrik asko, irakurle.**
*CIES-EK EMANDAKO DATUAK
Goienkaria



**> ANTZERKIA**
Gronholm metodoa: umorea eta satira Oñatin eta Arrasaten **> 24**



**> ZEA MAYS**
Zea Mays taldeak emanaldia egin zuen zapatuan Arrasaten **> 25**



**> LURDES IDOIAGA**
Oñatiko alkatearekin egon gara, haren aisialdiaz hitzegiteko **> 27**



**> TELEBISTA**
Txomin Madina kazetari oñatiarrari elkarrizketa **> 29**

# Manex Agirrek ukitu, Asier Otamendik jantzi

Buruz burukora ia parean iritsi ziren arren, azken ariketetan Manex baino hobe ibili zen Otamendi

Andere Arriolabengoak gozatu egin zuen bere lehenengo finalean, nahiz eta seigarren amaitu

Aramaioko zale zaratatsuek lagundu zuten 600 bertsozale bildu zituen Arabako finala girotzen

**JULEN IRIONDO** > GASTEIZ

Pena izan zen. Manex Agirrek hatz puntekin ukitu zuen Arabako txapela. Aurrerantzean, ordea, onddo beltzarena (horrela izendatu zuen Asier Otamendik bere burua hasierako agurrean) izango da txapel preziatua. Perretxikotako hizkerarekin jarraituz, oin dotore bati txapel txukuna dagokio, eta horrela da Asier Otamendiren kasuan.

Itxura paregabea agertu zuen Gasteizko Printzipal aretoak Arabako finalerako. 600 lagun batu ziren, eta Aramaiotik joandako talde handia arduratu zen saioa girotzeaz. Txalo, garrasi eta tutu, pankartarik ere ez zen falta izan bi aramaioarrendako: *BIGñaspre eta MACnex txapeldunak* zioen batek hanburgesa baten irudiaren alboan; Andererendako ere bazen *Erakutsi kalitatie* zioen bat.

**MANEX ETA ANDERE BATERA**

Zenbait bertsolarik final hasierako urduritasuna ezagun zuten arren, saioa txukun joan zen aurreneko fasean. Aurtengo txapelketak bi aramaioar garaipenerako lehian ikusteko aukera eman digu, baita Manex eta Andere finalean batera kantatzen entzutekoa ere. Hamarreko txikian biek egindako saioak utzi zituen ale politak. Hauxe zuten gaia: Anderek Manex ikusi du zakarretan janari bila; etxera gonbidatu du bazkaltzera.

Manexek ez zuen gonbidapena onartu aurreneko bertsoan, baina Anderek bere horretan jarraitu zuen: *Bizitza zuretzat da/holako krudela/gizartea zurekin/hutsa ta ustela/baina etxea duzu/gaurkoan epela/pentsatu ezazu behingoz/mesedez bestela/eta sentitu zaitez/etxean bezela*. Eta honela erantzun zion Manexek: *Igual sofan eseri/ta egongo naiz lasai/bazkaltzeko txuleta/ze ondo ta ze guai/dena eskertzen dizut/esan nahi dizut ai/baina ez zure etxera/gaur ez dut joan nahi/janaririk ez daukat/duintasuna bai*.

Andere Arriolabengoak lan txukuna egin zuen bakarka ere: *Minbizia da gaixotasun bat/luzea eta krudela/nere barrena azkenaldian/daukat halako goibela/ispilu aurrean argal-argal ta/itxura mehe ergela/baina gaurkoan ni sentitzen naiz/printzesa banintz bezela/denbora asko zen buru gainean/ilerik ere enuela*, bota zuen ispiluaren aurrean, gaixotasuna gainditzen ari den pertsona baten azalean jarrita.

Buruz burukoan, ofiziotan, Manex baino hobeto ibili zen Otamendi. Kartzelakoan, baina, oso lan txukuna egin zuen Aramaiokoak bizitoki berri batera iritsi den pertsonaren lekuan jarrita: *Epaiketa bat izan nuen behin/kontatzen hasi beharko/eta kondena preparatuta/zeukaten bukatzerako/gaur bizileku berrira nator/kartzela esaterako/eta zeldako lau paretetan/ni sartu naizenerako/hor bota ditut hemezortzi ta/laurogeita hemezortzi malko*.

Ariketa guztietako puntuak batuta, baina, Otamendi izan zen nagusi; 593,5 punturekin bederatzigarren txapela jantzi zuen Urretxun jaiotako gasteiztarrak. 11,5 puntu atera zizkion Manexi.



**ASIER OTAMENDI** Bederatzigarren aldiz jantzi du Arabako txapela. EDORTA SANZ



**ANDERE ARRIOLABENGOA** Amonari eskaini zion agurreko bertsoa, eta eskua jasota erantzun zion honek publikotik. O.S.

**ANTZERKIA** > 'GRÖNHOLM METODOA'

# Metodoak umorea eta satira izan ziren eta emaitza antzezlan entretenigarria

Satira, komediaren eta kritika mikatzaren erdibidean geratzen da, alde bietan kili-kolo

Halere, Txalo taldekoek lan guztiz entretenigarria aurkeztu zuten



**MULTINAZIONALAK** Hautaproba batzuetan lau exekutibo muturreko egoeratan ipinitzen ditu *Grönholm metodoak*. JOSETXO ARANTZABAL

**JON BEREZIBAR** > OÑATI

Entretenimendu nahikoa izan zuten zapatuan Oñatin eta domekan Arrasaten. *Grönholm metodoa* aurkeztu zuen Txalo antzerki taldeak. Oholtza gainean: Itziar Ituño, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Joseba Apaolaza. Bikain egon ziren laurak eta antzezlana ere disfrutatzeko modukoa izan zen, une baten edo beste baten antzerkirako moldaketa herren geratzen bada ere. Antzezlana satira bat da, multinazional baten exekutibo postua eskuratzeko hautaprobetan oinarrituta. Eta hain zuzen, satiraren planteamenduan geratzen da apur bat hankamotz moldaketa. Satirako umorearen bila joan zena barre algararik egin gabe atera zen antzokitik eta satirako gizartearen kritika mikatza bilatu izan zuenak amaiera gozoegia eta moralistaegia aurkitu zuen. Ematen du egileek erdiko bidea aukeratu dutela. Hortik kanpo, gustu kontuak alde batera lagata, lana oso ona da; bai antzezlana bera zein interpretazioa. Lanposturako probetan lau hautagai aurkitzen ditugu antzezlanean eta horietako bat satorra dela esaten diete. Hortik abiatzen da argumentua eta infiltratua atzemateko eztabaidetan azaleratzen dira lan mundu lehiakor kapitalistaren mamu eta gizatasun falta guztiak. Gaia, beraz, erakargarria da oso, baina sakontasun larregi ere ez diete ematen planteamenduei. Hori bai, oso lan entretenigarria da eta aktoreen lana ere txukuna. Nahiz eta, gaiaren tratamenduan bezala, pertsonaiak ere apur bat lauak suerta daitezkeen. Hori ere, baina, gustu kontua da , esan moduan, obra oso entretenigarria da-eta.

## Pettiren gitarra eta ahots urratuak "ondutako" kantuak Inkernun



JOSETXO ARANTZABAL

Pettik berak esan ohi duen moduan, bere diskorik onena da da azkena – Eskoriatzako Inkernun zapatu gauen aurkeztutakoa – eta horregatik ipini dio *On* izena. Blues eta folk doinuak izan ditu beti erreferente Berako bakarlariak; ahots urratuari ezin hobeto egokitzen zaizkion doinuak, hain zuzen. Eskoriatzako kontzertuan baina ohikoak bai, baina rockera eta eremu melodikoagoetara gerturatzen diren kantu berriak ere entzun ahal izan ziren.

Kantari nafarrarekin batera Lasarteko Karratua borobila da bikoteak ere jo zuen. Izen bitxia, inondik inora, taldearena. Hauek ere folketik gertu baina kutsu hippie-ago batekin-edo.

> ZINEMA

## Iazko euskarazko film laburrik onenak Bergaran, hilaren 17an

Aurtengo film laburren zirkuituan, euskarazko hamar film ikusteko aukera izango da. Apirilaren 17an da hitzordua iluntzeko 20:30ean Aroztegi aretoan eta besteak beste ikusi ahal izango dira Koldo Almandozen *Columba Palumbus* azken lana edota Logela Multimedia Elorrioko kolektiboaren *Ardauaren negarra,* ezagunenen artean. Ikusiko diren beste lanetako batzuk hauek dira: *Unrest, All about eves* (Gentzane Agirre), *Azken trena* (Mikel Alvarez), *Itzalak* (Iñigo Kintana) eta *Momorro* (Asier Mendoza). Film guztiak 2007an ekoiztuak dira. Lan horiekin batera Topaguneak antolatzen duen ikusentzunezko rallyan saritutako azken urteetako lanak ere eskainiko dituzte: *Anteojodunak* (Kalageli), *Zeruari* (Farranaga eta Antuñano) eta *Bestaldean* (Trastaka).

**KONTZERTUA** > ZEA MAYS ETA ANGER

# 'Morphina' aurkeztuta ere 'mono' nahikoa geratu da hurrengo baterako

*Morphina*-rekin itzuli da oso aspalditik gurean izan ez den Zea Mays. Zuzeneko dosiaren bila, jendez bete zen egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretoa

**JON BEREZIBAR**> ARRASATE

*Abiadura handian* kantuaren stoner danbatekoarekin ekin zioten Zea Maysekoek *Morphina* disko berriaren aurkezpenari. Oso aspalditik – makinatxo bat urte – ez ditugu Arrasate inguruan izan bilbotarrak eta ikusmina bazegoen, aretoa beteta zegoen-eta. *Bost-hamar* pisutsuarekin, *Gizakiak gizakia hil du* larriarekin edota *Morphina* itsaskorrarekin aurkezpen eta berotze lanak eginda; *Ipar haizearen atearen aurrean* ederra txalo artean hartu zuten entzuleek berehala. Taldea bero eta indartsu ordurako; Aiora-ren ahotsak ikaragarri jarraitu zuen hortik aurrera. Lan berria – azarotik kalean dena – ia osorik jo zuten baina tartean astia hartu zuten *Elektrizitatea* disko mitikora itzuli eta *Elektrizitatea* kantua bera edota *Aske* gogora ekartzeko. Zea Maysek inork baino hobeto puri-purian ipintzen dakien intentsitate eta indar horrekin, *Garden* abesti berria modu hunkigarrian jo zuten eta oraindik ere bulkada geratu zitzaien aurreko diskoko *Aspertu arte* jotzeko. Errepertorioko ilunak alde batera laga eta *Hondarretik Ondarroara* eta *Circus* berriekin dirsdira berria hartu zuen kontzertuak. Ia dantzagarria esan liteke. Bisen txandan, *Sortuz, grabitatearen aurka* disko paregabeari lekua egin zioten *Besterik ez naiz* eta *Dena* bitalistekin. *Kartzela* klasikoa ere berreskuratu eta agur esan zuten zaleen txalo eta poz aurpegiak atzean utzita. Gustuko abesti asko jo ez zituztelako sentsazioa ere utzi zuten. Zaila da baina Zea Maysek duen errepertorio zoragarriarekin asmatzen baina gogoekin geratzea ere txarra ez da. Itzuli egin beharko, orduan. Abesti zerrenda, edozelan ere, gustuz aukeratua izan zen estilo eta mota askotako abestiak dauzkate-eta. Asko gainera, ereserki bihurtu dira eta beti geratuko zaie zaleen kuttunen bat jotzeke. Horrela, *Morphina* diskoa ia osorik aurkeztu ziguten eta horrekin batera deigarria izan zen *Harrobian* disko bikaineko abesti bat bere ere ez zutela jo.

**ANGER**

Zea Maysek ez zuen bakarrik jo egubakoitzean, anfitrioi Angerrekoak izan zituzten. Abesti, bateria jole eta indar berriekin Arrasatekoak ere gogoekin utzi gintuzten: disko berrirako gogoekin. Printza pare bat besterik ez zizkiguten erakutsi baina nahikoa ikusteko hurrengoa "handia" izan daitekeela. Ia larregi itxoitarazten ez diguten. Taldea pozik ikusi genuen oholtzan; Iban bateria jotzaile berria ere etxean moduan eta aipagarri ere Beñat baxu joleak eszenatokian irabazi duen presentzia.



**AIORA RENTERIA** Ahots ikaragarria duen abeslaria. EKAIN ZUBIZARRETA



Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Apirilak 9.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Amaia Cadiñanos, Izaskun Mariñelarena eta Maider Urrutia.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 12 urte.
**ABESTIA >** *Lo egin.*



**NOIZ >** Apirilak 11.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Leire Moñux, Nora Irizar, Olaia Sanchez eta Sara Peñin.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Nirekin.*



**NOIZ >** Apirilak 9.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Esti Iturbe, Garazi Larrea, Maitane Altuna eta Nagore Uribesalgo.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Gau Txori.*



**NOIZ >** Apirilak 11.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Ariana Sasieta, Irati Murgiondo eta Miren Manuel.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Laztana.*



**NOIZ >** Apirilak 9.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Janire Davila, Maider Garcia eta Andrea Onandia.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Amets bat.*



**NOIZ >** Apirilak 11.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Idoia Herran, Lorea Madinabeitia, Andrea Baladron eta Nerea Olabarria.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 11 urte.
**ABESTIA >** *Izar iheskorra.*



**NOIZ >** Apirilak 9.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Iñaki Barrutia. eta Julen Larrañaga.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Narama.*



**NOIZ >** Apirilak 11.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Amaia Arregi, Irati Elortza, Irati Olaziregi eta Nerea Odriozola.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Ilargia.*



**NOIZ >** Apirilak 9.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Ainhoa Aranburu, Jone Arantzabal, Leire Errasti eta Nerea Garai.
**HERRIA >** Arrasate.
**URTEAK >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Eskutitza.*



**NOIZ >** Apirilak 11.
**ORDUA >** 13:47ean.
**TALDEA >** Alazne Irastortza, Amaia Ramirez de Okariz eta Mariñe Etxaniz.
**HERRIA >** Bergara.
**URTEAK >** 11 urte.
**ABESTIA >** *Bi minutuero.*

ASTE BUKAERA...

## Lurdes Idoiagarekin



Lurdes Idoiaga, senarrarekin, zapatu eguerdian, Zañartuko bueltari ekin aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

# "Zañartuko eta Olateko buelta ematea gustatzen zait zapatuetan senarrarekin"

Azokan erosketak egiten ditu, eta, erlaxatzeko sukaldean ibiltzea ere atsegin du Oñatiko alkateak

Alkatetza lanak erabateko arduraldian egiten ditu, eta familiarekin egoteko denbora gutxi du

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Lurdes Idoiaga (Oñati, 1950) Oñatiko alkatea da, eta astelehenetik egubakoitzera arte alkate lanak egiten ditu. "Lagun Aroko lana utzita, 2007ko uztailetik alkatetza lanak erabateko arduraldian egiten ditut", esan digu Idoiagak. Horren harira, 08:30ean hasten da lanean, eta bazkaltzera 15:00etan joaten da. Arratsaldean, 16:30etik 21:00etara egiten du lan. "Goizetan udal teknikariekin gai ezberdinak aztertzen ditut, eta herritarrek eskatutako bilerak izaten ditut", azaldu digu, "arratsaldeetan ere biltzen naiz herritarrekin. Gainera, zinegotziekin bilerak izaten ditut".

Dena den, alkate karguak ematen dizkion lanez gain, beste hainbat erakundeetan dituen karguei erantzun behar die. "Eudeleko exekutibako kide naiz eta politika saileko arduradun. Hortaz, bilerak izaten ditut astero Bilbon. Bestalde, Eusko Jaurlaritzan ere hainbat bilera izaten ditut". Horrek guztiorrek, errepidean kilometro asko egiteko aukera ematen dio Lurdes Idoiagari. "Ni neuk gidatzen dut, eta ez zait batere axola. Nire autoa erabiltzeak askatasuna ematen dit, eta, gainera, kontu handiz gidatzen duten horietakoa naiz", diosku.

Alkate izateagatik bete behar dituen lanak eginda, etxera bueltatzen da, senarrarekin afaltzera. Harekin pasa ditu Aste Santuko oporrak. "Senarrarekin eta lagunekin La Rochelle (Frantzia) inguruan ibili gara martxoren 19tik 24ra. Hainbat bisita egin ditugu, baina, indar berrituta etorri gara handik". Abuztuko oporrak hartu aurretik lan asko egin behar duen arren, planak eginak dituela esan digu."Familiarekin egoteko denbora gutxi dut, are gutxiago amarekin egoteko. Hortaz, abuztuan 15 egunez amarekin joaten naiz oporretan Cambrilsera (Tarragona). Baina, oraindik lan asko ditut eskuartean". Azkoagain futbol zelaiko eraberritze lanak, Ibarrako lanak eta Urrutxun kirol gune berria egingo duten lur-saila errekuperatzeko lanak egiteko asmoa dute abuztua aurretik.

**ASTE BUKAERAK, LASAI**

Lan egunetako ordua zorrotzegia denez, aste bukaeratan lasaiago ibiltzeko aprobetxatzen du. "Zapatuetan, 09:00etarako merkatuan egoten naiz erosketak egiten. Eta han erositakorekin bazkaria egiten dut egun batzuetarako", esan digu. Sukaldari lanak atsegin dituela esan digu."Erlaxatu egiten naiz sukaldean".

Kirol zalea ere bada, baina nahiago du mendian ibiltzea. "Aste bukaeratako beste ohitura da, Zañartutik edo Olatetik ibilalditxoa egitea, edo bestela Aloña eta Urbia aldera egiten dugu", azpimarratu digu.

Aste bukaera guztiak nahiko berdinak dira Lurdes Idoiagarendako, baina erlojuari begira egon barik ibiltzen da. "Erosketak egin, bazkaria gertatu, eta lagunekin, eta batez ere, familiarekin egoteko aprobetxatzen dut. Seme-alabekin bazkaltzen dut aste bukaera guztietan".

### "Orain ez dut asko irakurtzen, baina atsegin dut; aholkulari onak ditut ahizpa eta alaba"

Normalean, irakurtzen dituen liburuak erosi egiten dituela esan digu Lurdes Idoiagak, edo bestela, ahizparekin eta alabarekin trukatzen ditu. "Asko gustatzen zait liburuak irakurtzea. Baina, geroz eta gutxiago irakurtzen dut. Gau-mahaiaren gainean dudan liburua denbora gehiegi egoten da han". Liburuak aukeratzeko orduan bere ahizpa eta alabaren aholkuak jarraitzen ditu. "Haiekin fidatzen naiz, biak ala biak, irakurle finak dira-eta". Ken Folleten azken liburua irakurtzen hasteko gogoa dauka. "Baina, hasiz gero eta dakit noiz bukatuko dudan. Agian, udarako utzi beharko dut".

Udaletxean, egunero, hainbat egunkari hartzen dituzte, eta Lurdes Idoiagak bi irakurtzen ditu hasieratik bukaeraraino. "Alkatetzan nagoenetik, egunkarietako beste sail batzuk irakurtzen ditut, besteak beste, iritzi artikuluak".

## gazte zerbitzuak

**IKASTAROAK**

**> Udalekuak 08.** Gipuzkoako Foru Aldundia. 7 eta 13 urte bitarteko umeentzat antolatutako programa. Plazak zozketa bidez banatuko dira apirilaren 23an. Izena emateko epea: Martxoaren 31tik apirilaren 9ra Gazte Informazioko bulegoetan edo *http://www.gipuzkoagazteria.net/udalekuak*

**LEHIAKETAK**

**> "Gomendatzen dizut: merezi du!" 2008.** Gipuzkoako hainbat Arrasate eta Bergarako Gazte Informazio Bulegoek parte hartzen dute, Gipuzkoako beste bulego batzuekin batera. Informazio gehiago *www.aizue.com* blogean. Epea: irailaren 30a.

**> Musika maketak.** Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oriako 1. Musika Maketen Lehiaketa. Epea: apirilaren 30a.

**LANA**

**> Begiraleak.** Begirale izateko hainbat lan eskaintza bildu ditugu Uda-Txoko web orrian. Eskintzak ikusteko *www.gipuzkoagazteria.net/uda*

**> Udaltzaina.** Oñatiko Udala. Oñatiko Udalean udaltzain-lanpostu bat betetzeko oposizioa. Epea: apirilaren 16a.

**> Nekazaritza, auzo eta ingurumeneko teknikaria.** Oñatiko Udalean Nekazaritza, Auzo eta Ingurumeneko Teknikari lanpostu bat betetzeko oposiziolehiaketa. Epea: apirilaren 16a.

**IKASTAROAK**

**> Sorospena.** 2008ko apirilaren 14tik maiatzaren 6ra bitartean, Sorospen ikastaroa Azpeitian, DYAk duen Ordezkaritzan (Urola kalea, z/g). Astelehenetik ostiralera 19:30etatik 21:30etara izango da. Unibertsitateko bi kreditu eskaintzen ditu. Epea: apirilaren 13a.

**BEKAK**

**> Britania Handia.** La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako 20 beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainaren 13a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 22 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 30 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**OÑATI**

**Nicolas eta Igone ile apaindegiak esperientziadun ile apaintzailea behar du. 943 78 06 78 943 08 18 66**

**LORAMENDI KIROLAK**

**Neska bat behar da dendan lan egiteko. Euskara beharrezkoa. Ekarri datuak San Andreseko dendara.**

**ARRASATE**

**Sukaldaria behar da arratsaldetan. Eskola egutegia. Lehenbailehen hasteko. 607 63 37 79**

**BERGARA**

**Sukalderako laguntzailea behar da aste bukaeretarako 943 76 70 11**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxea salgai Sagasti auzoan: 89 metro koadro, 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, sukaldea, egongela eta trastelekua. Berogailua eta igogailua. Garajea barne. 687 11 07 21 edo 943 78 71 35.

**Arrasate.** Maalako Errabala kalean 72 metro koadroko etxebizitza salgai. 628 35 21 61.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berritua. 200.000 euro. 943 27 71 50.

**Arrasate.** Zigarrolan, 66 metroko etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komuna, ganbara eta kalefakzioa. Argitsua eta egoera onean. 180.000 euro. 685 72 83 24.

**Arrasate.** Zigarrolan, 66 metroko etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna, ganbara, kalefakzioa. Argitsua eta egoera onean. 180.000 euro. 685 72 83 24.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 m², guztiz jantzia. Hiru gela, egongela, bi bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai. Hegoaldera begira. Hiru logela eta bi bainugela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea aukeran. 15 urte. 339.500 euro. 630 60 47 75.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 653 70 84 04.

**Eskoriatza.** 73 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoia. Guztiz berritua eta eguzkitsua. Prezio interesgarria. 615 70 99 18.

**Oñati.** 63 m²-ko apartamentua salgai. Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukalde-egongela, bi logela eta komuna. Sukaldea guztiz jantzita, kalefakzioa, alarma... Dena berria, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

**Oñati.** 63 metroko apartamentua salgai. Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukalde-egongela, bi logela eta komuna. Sukaldea guztiz jarrita, kalefakzioa, alarma... Dena berria, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

**Soraluze.** Erdialdean kokatua. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainua. Eguzkitsua. 168.300 euro (28 milioi pezeta). 687 08 33 00.

**Arrasate.** 70 metro koadro. Sotoa, ganbara eta atariko ganbara. Hiru logela, bainugela, sukalde egokitua eta berogailua. Bi balkoi. Eguzkitsua. Ganbara eta etxea bat egiteko aukerarekin. Eunate. 626 71 98 16.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bizkaia etorbidean etxebizitza errentan. Hiru logela eta bi komun. Ikasleentzat bakarrik. 699 97 84 23 edo 629 72 47 42.

**Arrasate.** Erdialdean, 4-5 pertsonarentzako. Gas naturala eta gela indibidualak ikasleentzako egokituak. 200 euro pertsonako. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Pertsona batendako moduko logela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 666 21 88 95.

**Benidorm.** Apartamentua errentan ematen da Benidorm-en (Alacant) uztailetik aurrera. 678 36 19 01.

**Bergara.** Bi pertsonarentzako logela errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Telefonoa: 649 63 23 24.

**Bergara.** Martoko auzoan etxebizitza errentan ematen dut. 638 75 90 03.

**Peñiscola.** Bi logelako apartamentua errentan. Peñismar urbanizazioan, hondartzatik 100 metrora eta txirristadun igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

**Salou.** Apartamentua alokagai uztail eta abuzturako. Leku onean. 943 79 45 19 edo 627 34 31 78.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 686 99 59 41.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Oñati.** Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Oñatin lanean dabilen neska bat naiz. 655 72 27 61.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaletan** lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan, bereziki Arrasaten, logela alokatu nahi nuke. Printzipioz urtebeterako. 653 74 28 83.

**Gasteiz.** Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. 652 72 18 87.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aramaio.** Garajea salgai mediku kontsultako etxeetan. 656 70 35 57.

**Bergara.** Garaje irekia salgai Masterrekan. 651 70 90 12.

**Bergara.** Marraz bereizitako garajea salgai Ozaeta kalean. Deitu telefono honetara: 636 14 26 00.

**Oñati.** Garaje itxia Kale Zaharrean. 635 20 64 18 edo 943 53 37 92.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia errentan Larrea aldean. Bi autorentzako modukoa. Deitu 21:00etatik 22:00etara. 650 40 12 78.

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Espoloia kalean. 692 71 23 11.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** 25 metro koadro inguruko garajea hartuko nuke errentan. Deitu telefono honetara: 656 71 96 96.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Maalako Errabala kalean 30 metro koadroko lokal komertziala salgai. Deitu telefono honetara: 628 35 21 61.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara eta Arrasate.** Jardunean dagoen taberna bat alokairuan hartuko nuke. Telefonoa: 697 20 78 24.

**Oñati.** 25 metro koadro inguruko lokala. 656 71 96 96.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume bat behar da umeak zaintzeko bi orduz egunean (errelebuka). 686 24 68 92.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta** edo Arrasaten garbiketa lanak egingo nituzke. 646 50 83 59.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. Telefonoa: 943 53 33 92.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Mari. Telefonoa: 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 667 87 99 16.

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. 686 99 59 41.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. Telefonoa: 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. Telefonoa: 615 76 30 62.

**Debagoiena.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsaldez haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok Leiregatik galdetu. Telefonoa: 699 74 98 13.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. 622 81 53 31.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lanetarako prest. Aaron. 622 84 08 86.

**Debagoiena.** Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. 656 66 49 75.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. Telefonoa: 645 72 25 24.

### 502. EMAN

**Debagoiena.** Mutila matematika eskolak emateko gertu. Maila guztiak, Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. 696 38 10 07.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Jeep Cherokee.** 2.5 CRD. 147 ZP (foku biribilduna). 70.000 km. Gehigarri ugari. Egoera eta prezio oso onean. Telefonoa: 696 95 32 31.

**Mercedes Vito** 110 CDI salgai. 2001ekoa. 158.000 km. Toldoa, mahaia, ohea, hozkailua eta bizikletak eramatekoa dauzka. 12.500 euro. Telefonoa: 626 89 15 94.

**Opel Vectra** GT autoa salgai. 130 ZP. 800 euro, transferituta. 615 00 84 49.

**Volkswagen Transporter** TDi salgai. 90 ZP. 2000koa. 210.000 km. Aire girotua. 7.000 euro. 685 78 62 64.

**Volvo autoa.** Egoera ezin hobean dagoen auto on baten bila bazabiltza, deitu eta ikusi. 656 74 95 03.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. Deitu telefono honetara: 677 05 39 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Erlojua.** Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Nereagatik galdetu. Telefonoa: 943 79 68 18.

**Hitzalleko plantxak** salgai. Gama Ceramic Ion Technology. Egoera onean. 50 eurotan. 645 72 58 41.

**Txakurkumeak.** Ispanier arrazako txakurkumeak salgai. 664 46 06 45.

**Zigiluak.** 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. Telefonoa: 657 10 90 78.

### 806. GALDU

**Erlojua** galdu dut Loramendi Kirolak eta Super BM artean. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. 630 75 44 19.

### 807. AURKITU

**Paparrekoa.** Bergarako Artekale kalean urre koloreko paparrekoa aurkitu dute. Paparrekoak erdian harri zuri bat dauka. Deitu telefono honetara: 943 76 13 86.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. Deitu telefono honetara: 635 75 94 57.

**Apirilak 7: 168. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**SKUN FUNK markako 2 kamiseta eta 2 poltsa**
- OSKAR ELIZBURU EGIAZU (Arrasate)
- KONTXI ARENAZA BARRENA (Oñati)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**169. zozketako saria (apirilak 14)**

**Euskal selekzioko 2 txubaskero eta 2 kamiseta**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
38 euro
2008ko urteko kuota

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 7



**> Oñatiko Bertso Txapelketako finala, gaur 21:47**

Oñatiko V. Bertso Txapelketako finala eskainiko dute gaur Goiena Telebistan, 21:47an. Julen Iriondo kazetariak ekoiztu du saioa.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Berbaire.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ikusten.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Animalia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunako.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Kirolari.
**22:45** Berriak.
**23:15** Harmaillatik.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 8



**> 'Euskaldunak hizketan' saioan, medikuntza 22:15**

Ane Irazabalek aurkeztutako *Euskaldunak hizketan* saioan, medikuntzaz jardungo dute martitzenean. Gari bateko medikuntzaz hain zuzen ere.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Animalia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa .
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Euskaldunok hizketan.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 9



**> 'Animaliak' saioa eskainiko dute arratsaldean 17:47**

Animalien mundura hurbilduko gaitu Goiena Telebistak, Goierri Telebistak ekoiztutako eta Iñaki Leturiak zuzentzen duen saioarekin.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Euskaldunok hizketan.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Animalia.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Ikusten.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Euskal artzainak.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Teknopolis.
**23:45** Gaurkoak.
**23.47** Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 10



**> Musika eskaintza zabala 'Musikantoi' saioan 22:15**

Musika zaleok, Goiena Telebistan duzue zita eguenero. Era eta estilo guztietako musika taldeen gaineko saioak Maider Arregiren eskutik.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Zaharrak berri.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Marazki bizidunak.
**14:15** Euskal artzainak.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ur eta lur.
**16:17** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Kirolari.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazkiak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Teknopolis.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 11



**> 'Ilunpean' saioan, Ruben Rolando Sanchez 22:15**

Euskaldun berria da Ruben Rolando Sanchez, eta euskaraz bizitzea lortu du. AEK-ko irakasle, bertsolari eta Askapena elkarteko kide da.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Euskaldunok hizketan.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ur eta lur .
**16:15** Musikantoi.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Erreportajea.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Ikusmira .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Animalia.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 klip.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**>Joserra Senperena eta Victor Aneirosen cd-ak zozketan 10:30**

Dakizuen moduan Arrasate Irratiak astero izaten du zeozer zozketatzeko entzuleen artean. Aste honetan, bada, Victor Aneiros eta Joserra Senperena musikarien diskoak zozketatuko dituzte. Badakizue, deitu!

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua. Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; Oihuka diskoetxeko sortzaile izandako Ritxi Aizpuru; *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Albistegi laburra.

## gertutik



**Txomin Madina**
Kazetaria

# "Amandrearen janaria falta sumatzen nuen kanpoan nengoenean "

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**Oñatin jaio eta bizi da Txomin Madina. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da eta badira hiru urte komunikabideetan lanean hasi zela. Euskadi Irratian jardun zuen lehenik eta Goiena Telebistan dihardu orain. Gogoko ditu komunikabideak, batez ere telebista eta irratia.**

**Bilbon eta Donostian bizi izan zara. Zein hiri duzu gustukoen?**

Egia esan, bien artean Bilbo gustukoago dut, ikastera joan aurretik ere ezagutzen nuen hiria delako. Donostiak ere harritu ninduen, nahiko mesfidatia nintzen hiri horrekiko, baina aurkitu nion bere alde ona. Hala ere, bizitzeko, esango nuke Bilbo interesgarriagoa dela. Esan beharra dut kanpoan izan nintzenean amandrearen arrozaren, haren patata erreen edota saltsen, falta sumatzen nuen. Ez du parekorik sukaldean!

**Telebistan lan egiten duzu eta gainera badakigu ikustea ere oso gogoko duzula...**

Lehen telebista gehiago ikusten nuen eta horrekin baita programa mota gehiago ere. Orain telesail ugari ikusten ditut, eta egia da oso erraz harrapatzen nautela. Besteak beste *Perdidos*, *Anatomia de Grey*, *Cinco hermanos* edo *El ala oeste de la Casa Blanca* ditut gustuko.

**Kazetaritzan diharduzunetik inoiz ahaztuko ez duzun lan bat?**

Lelokeria badirudi ere, Aramaion, txiten inkubagailu bati buruzko albistea egin genuen. Badakit ez dela esklusiba bat, baina gustatzen zait kontatzera noana gustukoa izatea. Gaia asko gustatu zitzaidan eta primeran pasatu nuen albistea egiten. Beste gai batzuk daude, lantzeko zailak direnak eta momentuan gaizki pasatzen da; azkenaldian Arrasaten gertatu direnekin adibidez,baina lana atera dudala ikustea eta gainera ondo egin dudala ikustea plazer bat da.

**Irratia oso gustuko duzu txikitatik. Etxean jaso duzu zaletasun hori?**

Beti egon da gure etxean Euskadi Irratia egun guztian piztuta. Amak goizean goiz pizten du eta oheratzen garenera arte ez du kentzen. Entzuteko oso gustuko dut eta lanerako ere estimu berezia diot irratiari.

## asteko hitzorduak

### Ikuskizuna



ELGETA
**> Anthony Blakeren emanaldia ikusteko sarrerak salgai jarri dituzte**

Anthony Blake mentalista Elgetako Espaloia antzokian egongo da datorren zapatuan, hilak 12, 22:30ean, eta emanaldia ikusteko sarrerak salgai daude Espaloian bertan, 18 eurotan; bazkideendako, 15 eurotan.

### Ipuin kontakizuna



BERGARA
**> 'Ez sufritzeko erremedioak' izeneko ipuin emanaldia, helduendako**

Itziar Rekalde gasteiztarrak helduendako *Ez sufritzeko erremedioak* ipuin emanaldia egingo du eguenean, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Besteak beste, Doke taldearen *Actto para la Noche Buena* lana zuzendu zuen.

### Zinema




ARRASATE
**> Ciudad Juarez eta Chihuahuako emakume hilketak, dokumentalean**

Emakume Txokoak antolatutako zinema zikloaren barruan, *Preguntas sin respuestas* (Rafael Montero, 2005) dokumentala emango dute eguenean, Amaia antzokian, 20:30ean, Mexikoko emakumeen hilketen gainekoa.

kuxkuxeroa



Jon Berezibar

# Denontzat café esan zutenean

Hizkuntza eskubideen nazioarteko eguna zela esaten zebiltzala Radio Euskadirekin esnatu nintzen atzo, eta hori entzun eta berehala, errudun sentituta-edo, Euskadi Irratiaren bila jarri nuen ziztuan gailuko gurpila. **Baztarrika** jauna aurkitu nuen han Elebidek –euskararen zapalketak salatzeko telefonoak– izandako harrera azaltzen. Kasu larregi ere ez nion egin kafea hartzeke neukan-eta, baina ostean elkarrizketa egin diote Nafarroako herriren baten euskararen alde ez-dakit-ze

**"Kotxean nindoala kartela irakurri dut: Ospitalea-Hospital. Kafe-Café. Nik biak har ditzaket"**

festako (kafeina garunerako bidea egiten oraindik) antolatzaileari eta hitz egiten hasi bezain laster hark kontatu du berak ere deitu zuela Elebideko telefonora eta espainolez hartu ziotela. Ja! Orduan esnatu naiz, barre maltzurra atera eta ongi-etorria eman diot kafeinari eta, ostean, egun berriari. Gaitz dauka euskarak eta kexuka ere ez dugu ezer lortuko, kexatzen garenak euskal hiztunak gara-eta. Kuriosoa da ze hiztun ez direnak benetan uste dute euskara poliki badoala aurrera eta galdetzeko ea orain 30 urte zelan geunden. Ze kafe eman behar diegu horiei? Kotxean hori pentsatzen nindoala "Ospitalea-Hospital" kartel bat irakurri dut. Kafea-Café. Nik biak har ditzaket, baina eurek?



**Ikusi bai, ukitu ez.** Kartela guztiz ondo ulertu ez zuenak agian desilusioa hartuko zuen egubakoitzean Espaloian. *Sexo gratis* proposamena bai, baina antzezlan bat ikusteko proposamena da; ikusleek voyeur izatearekin konformatu behar zuten, hortaz. Sexurik ez, beraz, baina trukean barre egin eta antzezlanarekin gozatzeko aukera izan zuten Elgetako ikusleek.



**Bi zaldidun autoen ibilaldia guretik.** Gure ibarra ezagutzen ibili dira Donostiako Bi zaldi elkarteko kideak asteburuan. Geldialditxoa eta erakustaldia zapatu iluntzean egin zituzten, eta guztiak elkartu ziren Bergarako herriko plazan autoak erakusteko. Bederatzi auto ipini zituzten erreskadan, hainbat urtetakoak eta modelo ezberdinekoak, eta jende ugari gerturatu zen autoetara jakinminarekin. Bi zaldikoak ez dira Bergaran bakarrik egon, ibar osotik ibili ziren zapatuan auto mitiko horiekin. Udaberrian urtero egiten dute ostera elkartekoek eta normalean Donostia aldean ibiltzen badira ere aurtengoan gurera gerturatzea erabaki dute elkarteko kide den Jose Ramon Larrañaga bergarararrak gonbitea eginda.



**Waldorf pedagogia haur eskolan.** Haurren garapena eta giza baloreak kontuan hartzen dituen hezkuntza filosofia horri buruz hitz egin zuen zapatuan Lourdes Tormesen Waldorf haur maistrak Aretxabaletako udaletxean. Guraso talde bat dabil Aretxabaletan hezteko modu hori herritarrei azaldu guran, ezaguna izan dadin. Zapatuko berbaldia horrexegatik antolatu zuten. Haur bakoitza pertsona bakartzat hartu eta zuzeneko harreman pertsonalean oinarritzen da pedagogia hori. Ibarrean, Aramaion badaude dagoeneko haur hezkuntzako hainbat gela.




**272 lizentziadun berri.** Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza teknikoko ia 300 lizentziadunek jaso zuten diploma egubakoitzean Arrasateko Amaia antzokian. Sei espezialitatetako lizentziadunek hartu zituzten tituluak: mekanika, elektronika industriala, sistemen informatika, diseinu industriala, telekomunikazioak eta telematika. Jaurlaritzako Alberto Ortiz de Zaratek hitzaldia egin zuen banaketan.

**Nafarroa eta Araba aldetik ibili dira motorzaleak.** Antzuolako motorzaleek irteera egin zuten atzo Araba eta Nafarroatik. Errepideko motorretan, 400 bat kilometro egin zituzten bi gurpilen gainean Landa inguruetatik Zalduondora joanda, hortik Altsasura eta Irurtzun aldeko herrixkak ezagututa Iruñera joan ziren Antzuolako motorzaleak eguraldi bikainarekin. Ez ziren gainera hiriburuan geratu; urrunago ere joan ziren, Yesako urtegiraino, hain zuzen. Eguerdi aldean Nafarroako ikurretako batzuk ikusteko aukera izan zuten, Oliteko gaztelua edota Xabierko monasterioa. Arratsaldean, etxerako itzuleran, Lizarra, Zudaire eta Urbasatik Altsasuko bidea hartu eta Antzuolara bueltatu ziren.





**Eneko Arrusa lekeitiarra txapeldun.** Atzo izan zen Eskoriatzako II. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa. Hauek izan dira txapeldunak: nagusietan, Eneko Arrusa (Lekeitio), Jose Miguel Arraz (Derio) eta Ricardo Azkargorta (Bergara). 16 urtetik beherakoetan Sara Ramos (Bilbo), Daniel Rudano (Castro) eta Kristina Martin (Bilbo).

((112))
SOS DEIAK

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. Bergara Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
Oñati Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 Aretxabaleta: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. Aramaio: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
Elgeta: Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. Antzuola: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**

## zorion agurrak


ARRASATE
**June Villar Lumbreras**
Apirilaren 2an. Zorionak, gure printzesatxo nagusiari. Etxekoen partez ondo pasatu zure urtebetetzean.


ARRASATE
**Lide Villar Lumbreras**
Apirilaren 3an. Zorionak, gure printzesatxo txikiari. Etxekoen partez ondo pasatu zure urtebetetzean.


ARRASATE
**Unax Gonzalez Gartzia**
Apirilaren 3an urte bete. Zorionak, pitxin etxeko guztion partez bereziki Ali, Julene eta Iratiren partez.


ARETXABALETA
**Maialen Garai**
Apirilaren 3an 9 urte. Zorionak eta patxo haundi haundi bat familia guztiaren partetik!!


OÑATI
**Miren Anduaga**
Apirilaren 3an. Zorionak, potxolo! 12. urtebetetzia ondo ondo pasaittia opa dotzugu. Patxo haundi bat familixakuon partetik.


ARRASATE
**Oihana Ezkurra**
Apirilaren 4an. Zorionak, Itziar Zeke eta Liherren partetik.


OÑATI
**Manex Urrutia**
Apirilaren 4an. Zorionak, Manex! 8 urte. Ondo ondo pasau etxeko danon partez.


BERGARA
**Naia Berraondo Mateos**
Apirilaren 8an urtebete. Zorionak, politta eta patxo handi bat gurasoen partetik.


DEBAGOIENA
**Inar Cabo Mundiñano**
Apirilaren 5ean, bi urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.


ESKORIATZA
**Martin Berezibar Arevalo**
Apirilaren 5an 3 urte. Zorionak, pirata! Pablo, Malen eta Naroran partetik.


OÑATI
**Nagore Zelaia Bolinaga**
Apirilaren 6an 11 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetze eguna, zure etxekoen partetik!


ARRASATE
**Arrate Lumbreras zeziaga**
Apirilaren 7an. Zorionak eta urte askotarako!


BERGARA
**Nagore Davila**
Apirilaren 7an. Zorionak, guapisima! Ondo pasa urtebetetze eguna eta ea behar bezala ospatzen dugun! Patxo bat.


ARRASATE
**Ane Arrillaga**
Apirilaren 7an 8 urte. Zorionak, Familia guztiaren partetik, bereziki osaba Martin.


ARETXABALETA
**Irati Mendieta Gaztañaga**
Apirilaren 7an 4 urte. Zorionak, Irati! Elene, Paule, aitatxo, amatxo eta familixa guztiaren partez.


ELGETA
**Julen Zabala**
Apirilaren 7an. Zorionak, Julen! Bi patxo Elgetako familian partez!


BERGARA
**Maria Edroso**
Apirilaren 10ean, 7 urte. Zorionak, etxekoen partetik eta bereziki Mikelen partetik.


ARETXABALETA
**Julen Lanzos eta Nagore Biain**
Julenek apirilaren 11an 3 urte eta Nagorek apirilaren 12an urtebete! Zorionak, bikote!


ESKORIATZA
**Ugaitz Gruzeta**
Martxoaren 9an 5 urte. Zorionak, etxekoen partetik.


DEBAGOIENA
**Nora Lasa Oncala**
Martxoaren 30ean 2 urte. Zorionak, maittia, amatxo eta aitatxoren partez patxo handi bat!

## jaiotakoak


**Leire Biain Zumalde**
Oñati > 3,160 kilo. Martxoaren 31n. Gurasoak: Alazne (Oñati) eta Luis (Oñati). Argazkian, Leire jaio berria, sehaskan.


**Markel Carmona Arconada**
Arrasate > 3,190 kilo. Apirilaren 3an. Gurasoak: Esther (Arrasate) eta Emiliano (Arrasate). Argazkian, aita eta anaiarekin.


**Nora Bujanda Gabilondo**
Arrasate > 3100 kilo. Martxoaren 31n. Gurasoak: Itziar (Arrasate) eta Tito (Arrasate). Argazkian, Nora, amaren besoetan.


**Oinatz Alkizu Arenaza**
Aretxabaleta > 4,590 kilo. Apirilaren 2an. Gurasoak: Aitziber ( Aretxabaleta) eta Jon (Eskoriatza). Argazkian, Oinatz, lo seko.


**Paul Lazkano Ezpeleta**
Bergara > Apirilaren 2an. Gurasoak: Silvia (Bergara) eta Mikel (Bergara). Argazkian, Paul jaioberria, lotan.


**Peio Oleaga Errasti**
Oñati > 3,530 kilo. Apirilaren 4an. Gurasoak: Garbiñe (Eskoriatza) eta joxe (Oñati). Argazkian, Peio jaioberria, sehaskan lo.


**Sare Sarasua Zabala**
Durango > 3,210 kilo. Otsailaren 29an. Gurasoak: Arantza (Durango) eta Ignacio (Durango). Argazkian, Mari Carmen amamarekin.


**Nicolas Neira Collazo**
Gasteiz > 3,350 kilo. Martxoaren 29an. Gurasoak: Maria Jesus (Arrasate) eta Javier (Arrasate). Argazkian, Gurasoekin.



ASTELEHENEKO
Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-04-07

**Ruben Rolando Sanchez** > Askapenako langilea eta bertsolaria

# "Euskaldun berria izanda bertsolaritza utopia zen"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Ruben Rolando Sanchez Zaragozan jaio zen, baina txikitatik Gasteizen bizi da. Euskaldun berria, euskara eta Euskal Filologia ikasi, AEK-n irakasle lan egin eta bertsolaria ere bada. Aspaldian Askapena elkartean lanean dihardu.**

**ETEOn Enpresaritza ikasketak egin zenituen. Egin duzu lanik alor horretan?**

Bai, Geyserrendako hiru urte egin nituen ordenadore erraldoi batzuekin lanean. Lanean jarraitzeko eskaintza egin zidaten, baina ez nuen nire burua fabrika baten luzaroan ikusten, ikara sartu zitzaidan. Horrez gain, sasoi baten Gasteizen, BBVAn kutxazain lana egin nuen.

**Noiz eta zelan erabaki zenuen euskara ikastea? Aspaldiko asmoa zen?**

ETEOko garaian Azpeitiako pisu-kide batek arazo handiak zituen gazteleraz egiteko. Txikitatik barnetegietan ibilia nintzen, eta berarekin euskaraz egiten hasi nintzen. Orduan erabaki nuen euskara ikasi behar nuela, eta AEKn eman nuen izena. Gaur egun, orduko lagunak harrituta gelditzen dira niri euskaraz berba egiten entzuten didatenean.

**Euskal Filologia ikasi eta AEK-ko irakasle izan zinen...**

Bai, euskarak *harrapatu* egin ninduen, eta Euskal Filologia ikastea erabaki nuen. Pena eman zidan hori uzteak eta AEK-ko ikasketak bukatu ondoren, irakasle hasi nintzen. Lau urte eta erdi egin nituen Gasteizen eta Arabako herrietan euskara irakasten.

**Bertsolaritza ogibide ez, baina zure zaletasun handia da...**

Nire kasuan euskaldun berria izanda, bertsoa zen bigarren utopia. Batez ere, bertsoak ulertzea eta gozatzea. Gerora, 23 urterekin, bertso eskolan sartu nintzen giroagatik, eta ez neukan beste helbururik. Bertso afari baten bertsoa botatzearekin nahikoa nuen, baina sasoi baten inspiratuta egon nintzen, eta tira... Hala ere, gaur egun zoritxarrez oso denbora gutxi ematen diot bertsolaritzari.

**Gasteizko bertsolaritzak ematen du liburu bat egiteko lain...**

Bai. Eta ziur nik egindako liburuan asko kanpoan gelditu zirela. Beti esan dut Araban babak guk atera ditugula eltzetik. Izugarria da 1981ean Arabako bertso eskolak hasi zituztenek egindako lana.

**Zeinek uste duzu irabaziko duela Arabako bertso txapelketa (egubakoitzean idatzita)?**

(Barre). Arriskatuko naiz... Finalerdia ikusita, Manex Agirrek irabaziko du.

### TEST-A

**Herria:** Gasteiz. **Adina:** 32 urte. **Ikasketak:** Enpresaritza ikasketak eta Euskal Filologia. **Zaletasunak:** Denetatik: musika, literatura, lagunekin ibiltzea... **Zer amets bete duzu?** Euskara ikastea eta erabiltzea. **Zer amets daukazu betetzeko?** Ume batzuen aita ona izatea. **Herri bat?** Euskal Herria. **Nora egingo zenuke bidai bat?** Kolonbiara edo Palestinara. **Liburu bat?** *Alicia, lurralde miresgarrian*, jatorrizkoaren hitz jokoak dituelako.



**EUSKARA** Euskaraz bizi da Ruben Rolando Sanchez. ARABAKO BERTSOLARI ELKARTEA

## ai, ene!



### Ohea prest botoiarekin

Alperra izatetik batere ez nekatzeko burua hainbeste nekatzera badago tartea. Enrico Berrutik ohe bat egin du botoi bati sakatuta mekanismo batzuen bidez izarak lisatzen eta ohea txukun uzten duena.

http://es.engadget.com

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Faltsutzaileak

Karl Markovics aktoea asteburu honetan ezagutu dut; beno *Los falsificadores* filmean egiten duen **Sorowitsch** pertsonaia. Diru faltsua egiten zuen naziek harrapatu zuten arte. Gaueko saiora joan ginen; ze, behin eguzkia aterako eta, aprobetxatu egin behar: goizean Donostian eta arratsaldean Bilbon. Kontxatik Abandoibarrako pasealekura. Ez da berdina, jakina; baina bilbotarrena ere ikusgarria da. Hantxe gainera **Azkunaren** azken inbentoaren lekuko izan ginen **ama** eta biok: piper-potea udaletxeko lekurik altuenean (ikurrinaren ezkerretara); eta, jakina, zapatuan egin zuen eguraldiarekin, bandera hori-gorria ere izugarri bizia ikusten zen.



Izugarria ere **Iñaki Iriondok** atzo Garan **Ramon Jaureguiren** inguruan idatzi zuen artikulua; intentzioarekin egindakoa, jakina, baina zertara zetorren pentsatzeak beldur pixka bat eman zidan. Akaso marketin estrategiaren bat da. **Doctor Deseorena** ere horixe dela pentsatzen hasita nago; jada hiru biderrez atzeratu du **Francisek** disko berriaren kaleratzea: *Sexo, ternura y misterio*. Portadaren argazki lesbikoa zentzuratu dutela zabaldu zen hasieran; auskalo. Badaezpada, apirilaren 8aren zain hasi dut nik astea, Francisen zain.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
| --- | --- |
| +14 | +06 |

Giro nahasia astelehenean. Lainotu egingo du, batez ere goiz erditik aurrera. Zaparradak sarri botako ditu.

www.euskalmet.net



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA
5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

WEBGUNEAN ➡ www.smsoinu.com

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) | ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtz) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love(Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO1
Txus (La Polla) | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
SATANAS
EH2
SORGIN4
AIZKORAK
TARTALO
IKURRI3
LORA
BABAK
BASAJAUN
IKURRI5
LAU2
ARRANAK

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.